

2017ko maiatzaren 25 eta 26an
GASTEIZ



Biltzar nagusia



Politiko sindikala
PONENTZIA






Politiko sindikala **PONENTZIA**

PONENTZIA HAUEN JATORRIZKO BERTSIOA EUSKARAZKOA DA. HORTAZ, TESTUAK DOI-DOIAK EZ DIREN KASUETAN EDOTA INTERPRETAZIO EZBERDINAK EGIN LITEZKEEN PUNTUETAN, EUSKARAZKOA IZANGO DA EDOZEIN XEDETARAKO BALIO DUEN BAKARRA.

LA VERSIÓN ORIGINAL DE ESTAS PONENCIAS ES EN EUSKARA. POR TANTO, EN LOS CASOS EN QUE LOS TEXTOS NO SE AJUSTEN COMPLETAMENTE O SI DIERAN PIE A DISTINTAS INTERPRETACIONES, LA VERSIÓN EN EUSKARA SERÁ A TODOS LOS EFECTOS LA ÚNICA VÁLIDA.





Aurkibidea

1. KAPITALISMOAREN BENETAKO AURPEGIA AGERIAN.....	5
1.1 Kapitalismoaren gaurko ezaugarriak.....	5
1.1.1. Kapital–bizitza konfliktua.....	5
1.1.2. Prekarietatea, kapitalismoaren dominaziorako tresna.....	6
1.1.3. Inperialista.....	6
1.1.4. Hegemonikoa.....	6
1.2. Europa.....	7
1.2.1 Krisi ekonomikoa.....	7
1.2.2. Krisi politikoa.....	7
1.3. Estatu frantsesa.....	8
1.4. Estatu Espainola.....	9
2. EUSKAL HERRIA.....	11
2.1. Kapitalaren boterea erditik kendu ezinean.....	11
2.2. Mapa politiko, sindikal eta sozialaren bilakaera.....	11
2.3. Egoera iraultzeko prozesua martxan jartzeko garaia da.....	12
3. EUSKAL ESTATUA, EUSKAL SOZIALISMOA ERAIKITZEKO TRESNA.....	13
3.1. Euskal Estatu, zertarako?.....	13
3.2. Nolako Euskal Estatu? Euskal Errepublika.....	14
4. BURUJABETZA PROZESUA.....	15
4.1. Burujabetza prozesuaren helburuak.....	15
4.2. Burujabetza prozesuaren oinarriak.....	16
4.2.1. Herritarren gehiengoak bultzaturiko prozesua.....	16
4.2.2. Prozesu eratzaille eta eraldatzailea.....	16
4.3. Burujabetza prozesuaren ardatzak.....	17
4.3.1. Erabakitze eskubidean oinarrituriko estatus politiko berriak.....	17
4.3.2. Estrategia sozioekonomiko soberanista.....	18
ONDORIOAK-EBAZPENAK.....	21

LAB MUNDUAN ZEHAR – NAZIOARTEKO LERROA DATOZEN URTEETAN.....	21
LAB EUSKAL SOZIALISMOAREN ERAIKUNTZAN.....	21
LAB EUSKAL HERRI BURUJABERA ERAMANGO GAITUEN BIDEAN.....	21

5. EREDU SINDIKALA.....	23
5.1. Bizitzaren sostengarritasuna erdigunera ekarriko duen eredu sindikala.....	23
5.2. Kontrabotere sindikalismoa.....	23
5.3. Klase subjektu berriaren osaketa bultzatu.....	25

6. EKINTZA SINDIKAL INTEGRALA.....	27
6.1. Lan banaketa eta aberastasun banaketaren aldeko borroka.....	27
6.1.1. Enplegua sortu-lana banatu.....	27
6.1.2. Enplegua duintzeko neurriak.....	28
6.1.3. Diskriminazio egoerekin amaitu.....	28
6.1.4. Lan osasun sistema publikoaren aldeko apustua.....	29
6.1.5. Lan munduaren euskalduntzea.....	30
6.1.6. Babes sozialerako sistema publiko, unibertsal eta duina.....	30
6.2. Sektore publikoaren aldeko apustua.....	31
6.3. Mobilizazioa eta aktibazioa indartu.....	32
6.4. Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eta negoziazio kolektiboa.....	34

7. ELKARLANA ETA ALIANTZAK.....	37
7.1. Sindikalismo abertzalea.....	37
7.2. Elkarlana eragile sindikal eta sozialekin.....	38
7.3. Elkarlan espezifikoak.....	38

1. KAPITALISMOAREN BENETAKO AURPEGIA AGERIAN

(1) Kapitalismoan ez dago bizi proiektu duin eta askea edukitzeko eskubidea ziurtatzerik. Ez dago horrelakorik, kapitalari aberastasuna neurririk gabe metatzen jarraitzeko aukera onartzen eta babesten zaion sisteman.

(2) 2008an eztanda egin zuen krisi finantzieroa krisi ekonomiko bihurtu zen berehala. Krisi politiko sakona eragin zuen eta krisi sozial ikaragarrian murgilduak utzi gaitu. Kapitalismoaren fase bat izan da eta ziklo berri bat irekitzeko baliatu du berriro.

(3) Ziklo berriak irekitzeko sisteman sakondu behar duen neurrian, geroz eta handiagoa da kapitalismoaren bortizkeria eta basakeria. Krisi guzti-guztiak indartzen ari dira, batera, gainera. Zibilizazio krisiaz hitzegiten da jada. Kapitalismoa ez da sistema iraunkorra, kapitalismoan sakontzen jarraitzea ez da bideragarria, arriskuan jartzen du zibilizazioaren etorkizuna.

(4) Krisiak bistakoa egin du kapitalismoaren benetako aurpegia, muturreko egoerak gure artera ekarri dituelako. Pobrezia, elikadura arazoak, migrazio fluxu masiboak, klima aldaketa, demokraziaren likidazioa, emakumeen kontrako biolentzia indartzea. Prekarietatea langileria dominatzeko eta boterearen pribatizazioa.

1.1. Kapitalismoaren gaurko ezaugarriak

1.1.1. Kapital-bizitza gatazka

(5) Kapital-bizitza gatazkan barnebiltzen ditugu gaur egun klase gatazkaren baitan gertatzen diren esplotazio maila ezberdinak. Klase eta genero esplotazioarekin batera, arraza, sexu eta jatorri diskriminazioa ere ematen da, harreman ekonomiko heteropatriarkaletan ezinbestekoak dira.

(6) Kapitalaren banaketaren eta orden berriaren politika ekonomiko, sozial, kultural eta militar bidegabeen ondorio zuzena da migrazioa. Pertsonak eta herriek ez dute aukerarik euren baliabideak kudeatzeko, ezta euren indarguneak gartzeko ere. Egoera horiek milioika pertsonari beren herrialdeetan bizitzea galarazten diete. Herrialdea, etxea, lana eta familia uztera behartuak daude.

(7) Kapitalak bere burua birkokatu eta aberastasuna metatzeko estrategia berri du azken urteetan. Kapitalaren eta lanaren arteko talka muturrera eramanez. Eta horretan geratu gabe, kapitala pilatzen jarraitzeko bitarteko bihurtu dute bizitzaren sostengarritasuna bera.

(8) Lan harremanetan ezartzen ari diren araudien bidez langileok sortzen dugun aberastasuna bereganatzen dute; asmo bera dute zaintza lanak ez aitortzean, zerbitzu publikoak pribatizatzean eta oinarritzko eskubideak merkantilizatzerakoan ere. Aberastasunaren zati geroz eta handiagoa bereganatzen ari dira, lan sarien bidez edo diru publikoa xahutuz.

(9) Estrategia bortitz hori emankorra da kapitalarentzat: langileak txirotu eta desmobilizatu ditu; jendartearen oinarritzko eskubideak betetzen dituzten zerbitzu publikoak bereganatu ditu eta zorpeturiko Estatuetan bankeetxeen interesak lehenetsi.

(10) Hau guztia ez da etorkizunean jazoko den zerbait; bizi dugun egoeran gertatzen ari da. Ez litzateke posible izango Estatuak kapitalaren estrategiak bere egingo ez balitu.

1.1.2. Prekarietatea, kapitalismoaren dominaziorako tresna

(11) Ez dago enplegurik guztiontzat, lana soberan egon arren. Dagoen enpleguak ez du oinarrizko beharrak betetzeko aukerarik ematen. Zerbitzu publikoak merkantilizatu dituzte eta estatuak babes sozialerako erabili beharko luketen dirua zor publikoa ordaintzeko erabiltzen dute, herritarrok sortu ez dugu zorra, hain zuzen ere.

(12) Edonola ere, prekarietatea ez da lan harremanetan gertatzen den lan baldintza kaskarren definizio hutsa. Oinarrizko beharrak asetzeko egokiak diren baliabideak eskuratzeko ziurgabetasuna ere bada. Kapitalak inposatu digun eredu da, aberastasunaren akumulaziorako daukan bitarteko nagusia.

(13) Prekarietatearen aroan lanaren eta kapitalaren arteko gatazkan gehiago sakondu dute, baina kapitalak lanari ez ezik bizitzari ere erasotzen dio, bere esparru guztietan. Bizitzari erasaten dio, ekonomia harreman heteropatriarkalek zeharkatzen dutelako eta kapitalismoak instituzio guztiak bereganatu dituelako. Pertsonak interdependiente eta ekodependienteak gara, baina kapitalak gure denborak eta jarduerak bere beharren arabera antolatzea derrigortzen gaitu eta Amalurra etengabe erasotzen du. Eraitza jakina da: aberastasuna kapitalarentzat, bizitza prekarioa gizon eta emakume langileentzat.

(14) Kapitalak, gainera, beharrezkoa du jendarte eredu heteropatriarkalari eustea. Jendearen sostengua ezin bada sektore publikotik bideratu, sostengua eremu pribatutik bideratzen da. Familien esku gelditzen da, beraz, jendarte prekarioaren oinarrizko betebeharrak asetzeari. Horrek bideratzen du emakumeen papera jendartean: ikusezin bihurturiko zaintza lanak beren gain hartzea behartuak daude eta lan harremanen esparruan beren egoera baldintzatua dago. Gaur egun, beraz, bizitzaren sostengarritasunaren ardura feminizatua, pribatizatua eta ezkutatua dago.

1.1.3. Inperialista

(15) Kapital finantzioaren boterea planeta osoan zehar zabaldu da, bizirik dagoen guztiaren etorkizuna arriskuan jarri han eta hemen. Dominazio sistema horrek ezartzen ditu mundu mailako produkzio harremanak. Pertsonak ditugun beharrak asetzeko gai diren sistema egokiak garatzeko aukerak badira, baina kapitalismoak galarazi egiten ditu. Ezinezko egiten ditu.

(16) Kapitala pilatzen jarraitzeko politika horien ondorioa beti izango dira gatazkak, gerrak, pobrezian dauden pertsonak etengabe ugartzea. Inoiz ez bezala pareka ditzakegu kapitalismoa eta hondamendia.

(17) Hondamendietatik ihes egitera behartuak geroz eta gehiago diren neurrian, handitzen ari dira migrazio joerak, migrazioa bera hondamendi bihurtzeraino. Hori horrela izanik, migrazioaren auzia norbere herriko sistema kapitalistaren defentsarako arrazoi bihurtzea lortu dute. Migranteen kontra borrokan nahi gaituzte, noiz eta kapitalismoaren kontrako borroka indartzea urgentziakoa den garai honetan.

1.1.4. Hegemonikoa

(18) Hori guztia posible egiten du kapitalaren eta gaurko estatuetakoko agintarien arteko aliantza estrategikoak. Kriaren inguruko politiketan bat egiten dute, eta gainera, sistema betikotzeak batzen ditu. Sistema betikotzeko jarri dituzte estatuak eta politika publiko guztiak kapitalaren zerbitzura.

(19) Estatuak esku lotuak agertzen zaizkigu botere ekonomikoak agindutako politikak egiten dituzten bakoitzean. Ez da egia beste biderik ez dagoenik. Estatuak kendu diete burujabetza herriari eta kapitalaren esku utzi dute. Gobernuak eraman dute muturrera merkatuaren legea, eta lege bakar bihurtu.

(20) Azken urteetan kapitalak oldarraldi oso adierazgarria izan du bestelako sistemak eraikitzeko hautua egin duten Estatuak kontra. Hor ditugu Venezuelaren kontrako gerra ekonomikoak edota Greziako herriaren kontrako mehatxuak, troikari eman zioten ezetzaren ondorioz. Biek erakusten dute nolako joko zelaian ari garen borrokatzen. Kapitalak bere arrastotik irten nahi duten Estatuak mendean hartzeko boterea eskuratu du; sistemaren indarraren eta hegemoniaren adierazlerik argiena da hori.

(21) Estatuak bereganatzea gutxi bada, enpresa transnazionaleri Estatuei bezainbesteko boterea ematea izango da urrats berria. Martxan dauden nazioarteko hainbat itun (TTIP, CETA...) interes ekonomikoetan oinarritutako akordio komertzialak dira, baina esangura guztiz politikoa dute. Merkatua erdigunean jarri eta guztiaren gainetik babesten duen sisteman ez dute ez herriak ezta estatuak ere erabakitzen; enpresa nagusiek erabakiko dute, kapitalak erabakiko du.

(22) Globalizazioa arlo guztietara heltzen da, baita hizkuntza eta kulturaren homogeneizaziora ere.

1.2. Europa

1.2.1. Krisi ekonomikoa

(23) Europako Batasuna (EB) krisi ekonomikoa jota dago eta krisialdia eragin duten politika berberak aplikatzearen ondorioz, honen kronifikazioaren atarian gaude. Koadro makroekonomikoak maldan behera doaz. Botere politikoak hartutako neurri guztiak hazkunde ekonomikoari begirakoak izanik ere, 2014ko hazkundea %1,4 baino ez zen izan eta %0,9 besterik ez, eurozonari dagokionez.

(24) Eta gauzak ez dira aldatuko, neurrien emaitzak bistakoak dira. Adibidez, Troikak hiru "programa" ezarri dizkio Greziari dagoeneko, hiru "erreskateren" trukean. Zazpi urtean zehar, Greziako zorra %126tik %177ra hazi da; BPGa %25 txikitu da; langabezia tasa %26koa da, eta populazioaren laurden bat pobreziaren muga azpitik bizi da.

(25) Troikaren "programek" errezeta berberak aplikatzen dituzte toki guztietan: fiskalitate erregresiboa, soldaten jaitziera, negoziazio kolektiboaren ezeztapena, sindikalismoa eta askatasun sindikala erasotzea, pentsio sistema publikoak deuseztatzea, zerbitzu publikoak eta estatuen ondasunak pribatizatzea... Helburua, beraz, berbera da Europa osoan, banka eta kapital handien irabaziak eta boterea areagotzea, herritarrak ustiatzen eta langileria ahultzen duten bitartean.

(26) Europan ez dago batasun politikorik hainbat gauzetan, baina politika berdin-berdinak inposatzen dira herrialde guztietan.

1.2.2. Krisi politikoa

(27) Arazo ekonomikoez gain bestelakoak ere baditu Europako Batasunak. Gero eta agerikoagoa da herritarren begietara Europako Batasuna interes ekonomikoen mesedetan diseinatutako proiektua baino ez dela eta herritarren desafekzio instituzionala nabarmen ari da hazten.

(28) Krisialdi horren garapenean desberdinkeria ekonomiko eta sozialak izugarritzko mailetara heltzen ari dira, Troikak herrialdeei inposaturiko austeritate politiken, murrizketen, aurrekontu disziplinaren eta ongizatearen suntsipenaren ondorioz. Azken Eurobarometroaren arabera, europearren heren batek (%33k) baino ez dauka konfiantza Europako Batasunaren instituzioetan.

(29) Horri lotutako gertaera aipagarriena Brexit izenekoa da. Irteera prozesu oso bat izango da, ezegonkortasun politiko eta ekonomikoen iturri. Eta ondorio tangentialak ere izango ditu, Eskoziako independentzia erreferenduma errepikatzea edota Irlanda osoa batzearen inguruan galdeketa burutzea.

(30) Halaber, Europako Batasunaren proiektu politikoa krisira eraman duten bestelako gertakari batzuk ere egon dira: Eskoziako erreferenduma eta Katalunian irekitako prozesua. EB goitik behera eraikitako proiektua dela ikusi da, estatuek egindakoa, kapitalaren mesedetan. Europako Herriak direnean prozesu politiko propioak martxan jartzen dituztenak, Europako Batasunak ez du baliozko erantzunik; eraso ekonomiko eta finantzieroetan oinarrituriko mehatxu politikoak besterik ez.

(31) "Europako errefuxiatuen krisia" deitua izan denak, bestalde, Europaren ustelkeria politikoa denon bistan utzi du. Milaka pertsona Europako hainbat herrialdeetako atarrietan pilatzen ari dira, bizitza aukera baten bila. Europak, ordea, ez du eskuzabaltasun eta elkartasun keinurik egiten. Harresiak eta alanbre-hesiak altxatzen dituzte segurtasunaren izenean, polizia eta militar kontrol zorrotzak ezartzearekin batera. Transnazionalak euren interesen arabera mugitzeko erraztasun

guztiak dituzten bitartean, espoliatutako herrialdeetako herritarrek ez dituzte giza eskubideak bermatuak, basakeria juridikoa ere pairatzen baitute, bizi duten dramaren baitan. Migrazioaren pisua Europan %0,15koa da. Migrazioa arazoa da jatorrizko herrialdeetan, ez Europan.

(32) Migrazioa Europan lehen mailako auzi politiko bihurtu dute ateak itxi dituztelako, ehundaka mila lagun babesik gabe eta mafien esku utzi dituztelako, milaka geratu direlako bidean. Europan, beste leku askotan bezala, migrazioa arazo bihurtu dute jakinda horrela herritarrak tokian tokiko sistema blindatzea eskatzen hasiko direla.

(33) Sozialdemokraziaren krisia. Europa osoan alderdi "sozialdemokratak" maldan behera dabilta. Sistema neoliberalari alternantzia politikoak eusten dio, eta alternantzia horretarako ezinbestekoak izan dira aipatutako alderdiak. Bada, alderdi hauen jaitsiera orokorra da. Aipatzekoa da Europa osoko bigarren jaitsiera nabarmenena Estatu espainoleko PSOEren izan dela, Greziako PASOKen atzetik. Arrazoiak ez dira koiunturalak, sistemikoak baino, azken hamarkadetan alternatiba politikoa gorpuzteari bizkar eman baitiote, nahiz eta orain, krisialdiak, egoera areagotu egin duen.

(34) Aukera ultraeskuindarren gorakada. Ezkerra ez da gai izan alternatibak eskaintzeko. Muturreko eskumak, ordea, ondo jakin du egoeraz baliatzen. Diskurtso xenofoboarekin eskubide sozialen galera migranteei egotzi eta "patriotismo ekonomikoarekin" bereganatu egin ditu bai establishmen delakoaren jarrera, baita Europako aginduen eta instituzioen kontrako herritarrena ere. Europa osoan zehar alderdi berriak sortu dira. Beste kasu batzuetan, jadanik existitzen ziren horiek orain arte ikusi ez bezalako pisua hartu dute. Aipatzekoa da Frantziako Front National-en kasua, gobernurako aukerak gertu dauzka eta.

1.3. Estatu frantsesa

(35) Estatu frantsesean eta Estatu espainolean ezarri diren erreformak (baita beste herrialde batzuetan, hala nola Grezian) oso antzekoak dira. Troikaren errezeta berberak dira guztiak eta Europa osoa birmoldatzea dute helburu. Esan behar da beste zenbait estatutan, Alemanian kasu, krisia baino lehenagotik hasi zirela bide horretan. Estatu frantsesari dagokionez, adibide moduan, azken lan erreforma edota pentsio erreformak:

(36) Pentsio erreformak: 1993tik erreformaz erreforma, gobernu desberdinek jubilazio adina atzeratu dute. 2010eko pentsio erreformarekin Sarkozyk jubilazio adina are gehiago atzeratu zuen, 60 urtetatik 62 urtetara. 2013koan kotizazioa ukitu dute batez ere: kotizazio urteak luzatu ditu (43 urte kotizatuta eduki behar dira pentsio osoa jasotzeko) eta kotizazioen kopurua gehitu du Hollanden Gobernu "sozialistak". 25 urterekin lan mundura sartzen den gazte batek, 68 urte arte lan egin beharko du jubilazio osoa kobratzeko.

(37) Azken lan erreforma:

- Negoziazio kolektiboaren suntsipena (enpresa hitzarmenak sektore hitzarmenen gainetik). Hitzarmenen bernegoiazio prozesu horietan langileek ordura arte izandako abantaila guztiak galduko dituzte, soldata izan ezik.
- Kaleratzeak merketu eta erraztu (arrazoi ekonomikoengatik kaleratzeetan "lehiakortasunari eutsi" ahal izatea nahikeria arrazoitzat harturik).
- Lan jardunaldiaren malgutzea (35 orduko lan astea deuseztatu eta 46 orduz egin ahal izango da lan, edo gehiago, enpresan "akordioa" baldin badago). Aparteko orduak ere merketuko dira.

(38) Ezagutu ditugun gobernuek, alderdi batekoek zein bestekoek, nagusien aldeko interesak defenditu baizik ez dute egin. 2012an, Hollandek zioen, bere hauteskunde kanpaina garaian, hori dena aldatu nahi zuela; kapital eta finantza munduari gerra egingo ziola zin egin zuen eta aldaketaren garaia zela ere esan zuen. Hala ere, esandakoa ez betetzeaz gain, Hollande/Valls Gobernuak aldaketa are liberalagoak burutu ditu langilegoaren lan baldintzak okertzeko eta patronal munduari opariak egiteko. Gainera, Konstituzioaren 49.3 artikulua erabili izan dute legeak onartzeko Parlamentuan eztabaidarik egin gabe, dekretuz, alegia.

(39) Bere burua ezkertiarizat duen alderdiak hori guztia egin izanak eta Frantziako ezkerrek alternatiba gorpuzten asmatu ez izanak, besteak beste, eskuin erradikala indartzea ekarri du. 2017ko maiatzean izango diren hauteskunde presidentzialetan pentsa dezakegu eskuina ultraeskuinaren aurka izango dela.

1.4. Estatu Espainola

(40) Aurreko Biltzarrean esaten genuenez, berdin da zeini dagokion txandakako gobernua eta berdin da hazkunde edo krisi garaia den. Estatu espainolak egiturazko arazo ekonomiko eta sozialak ditu eta ez die sekula aurrez aurre begiratu. Hazkunde garaiak ez dituzte baliatu eredu eta egitura sozioekonomikoa zuzentzeko. Eta krisi garaiak baliatu dituzte elite ekonomiko-finantziario txiki baten mesedetan den sisteman sakontzeko.

(41) Trantsiziora begiratu besterik ez dago Estatuaren ezaugarriok azaltzeko: diktaduran agintzen zuten botere politiko-ekonomiko eta faktikoak ez dira aldatu. Egin beharreko hausturarik ez zen orduan egin eta bistakoa da emaitza. Sistema ez aldatzeak sistemaren ezintasun eta arazoetan sakontzea ekartzen du beti.

(42) Trantsizioaren zutoin guztiak krisiak jota zeudela esan genuen. Eta hala zen. Baina berreraiki egin dituzte: erregea aldatuz monarkia berreskuratu dute; kolokan zegoen bipartidismoa, baina alderdi politiko berrien sorrerarekin haren krisia bideratu egin dute, alderdi zaharren artean akordioa nagusitu delako sistema salbatzeko; Gobernua osatzeko akordioaren ondoren, beste krisi batzuk ixteko itun berriak etorriko dira: egonkortasun instituzionala, hezkuntza ituna, botere judizialari begirakoa e.a.

(43) Bigarren trantsizioaren aukerak markatu ditu azken urteak. Okertzeko beldurrik gabe esan dezakegu, oraingoan ere, haustura baztertu eta jarraipenaren hautua egingo dela. Eta '78an bezala, itxi ezineko krisia lurralde ereduaren auzian izango da. Orduan bezala orain, Estatuak arazo bat du Kataluniarekin eta arazo bat du Euskal Herriarekin.

(44) Nazio gatazkek bere horretan dira eta, aipatzekoa da, batez ere, azken urteotan Kataluniak deskonexiorantz hasitako bidea. Estatuak, berezko duen egite autoritarioaz, ukazioan sakondu eta birzentralizazioaren errezeta aukeratu du. Estatu indarra bere osotasunean erabiltzen ari da horretarako.

(45) Botere judizialaren erabilpena: Kataluniako prozesu independentistaren kontra ez ezik, hemen ere, instituzioek hartzen duten edozein erabakik gobernu ordezkariaren salaketa jasotzen du.

(46) Botere legegilea krisiaren testuinguruan. Erreforma eta legedi ekonomikoak, eskubide sozial eta laboralak hondatzeaz gain, erkidegoen autonomia eskasaren kontra erasotzeko ere erabiltzen dira. Autonomien Estatuaren modalketa egiten ari dira, hauen eskumen, lege ahalmen eta politika propioak egiteko gaitasunaren kontra. Konstituzioaren 135. artikulua erreformaren ostean, lege dekretua inoiz ez bezala erabili du Estatuak, eta gainera, Erkidegoen eskumenei dagozkien hainbat gaitan Estatuak bere erabakiak inposatu izan ditu: osasunean, hezkuntzan, funtzio publikoan, tokiko administrazioetan, zerbitzu sozialetan e.a.

(47) Eta nola ez, Estatu indarra. Bere zentzu eta dimentsio osoan. Egoera politikoa aldatu arren, nazio gatazkek irabazteko xedez erabili dituen neurri eta salbuespen politika guzti-guztiak indarrean dira Estatuan: alderdien legea, itun antiterrorista, espetze politika e.a. Estatuaren esku dago horien erabilpena.

(48) Eta Estatuak injerentziaren aukera beretzat gorde du, herriaren ekimenez sortzen diren egoera politiko eta sozial berriak zapuzteko helburuz.

(49) Azken urteak oso gogorrak izan dira egoera goitik behera aldatu nahi dugun mugimenduotzat. Ondorio argiak ateratzeko urteak izan dira: Estatu espainola ez da demokratizatuko. '78an bezala, haustura demokratikoa Estatuak zapaltzen dituen Herrietatik etorriko da. Katalunia badoa Estatuarekin talka egitera. Euskal Herrian ere hausturaren aldeko jarrera nagusitu behar da, hor dagoelako gure herrira demokrazia behingoz iristeko aukera bakarra.



2. EUSKAL HERRIA

2.1. Kapitalaren boterea erditik kendu ezinean

(50) Euskal Herrian ere etorkizun kaskarra dugu sistema aldatu ezean. Arduradun instituzionalek, PNVk zehazki, behin eta berriro Estatuarekin alderatu nahi izan dute hemengo egoera, eta egoeraren larritasuna ez dela hainbestearainokoa esanez saihestu nahi izan dituzte erantzukizunak.

(51) Hemen ere bada pobrezia, bazterketa soziala, gosea, hotza, eta migrazioa. Emakumea bazara pobrezia-aren arriskua biderkatu egiten da. Bikoterik gabeko ama bazara ziur egon arazoak izango dituzula. Etxean lanean, ingurukoak zaintzen eman baduzu bizi osoa, ez duzu inolako eskubiderik izango zaindua izatea egokitzen zaizunean. Gazteak alde egitera behartuak daude bizi proiektua eraikitzeko. Gaztetatik kotizatu arren, nagusi zarela kaleratu bazaituzte, jai duzu, ez enplegurik, ezta pentsio duinik ere, ez baituzu izango. Eta ez dute Estatuak erabaki, eredu sozial hau bertoko instituzioetatik ezarri da hamarkadetan garatutako politiken bidez, oraindik indarrean dauden politiken bidez.

(52) Langile migranteak euskal langileak dira. Pertsona migranteak ez dira mehatxua. Gure benetako etsaiak austeritate politikak dira, segurtasunaren eta beldurraren izenean bultzatzen dituzten politikak. Erabateko erasoak pairatzen ari dira langile migranteak (batez ere paper barik daudenak) bizi eta lan baldintzei dagokienez; kontratu prekarioenak dituzte (kontratua badute), soldata baxuenak ere bai, eta kasu askotan, eskubide politiko, ekonomiko, sozial eta sindikalak ukatzen zaizkie.

(53) Hemen ere demokrazia txikitu dute azken urteetan, eta meritua da, gurea benetako demokraziarik sekulan ezagutu ez duen Herria dela kontuan hartuta. Sindikatu abertzaleen kontrako eraso sistematikoa horren adibide argia da. EAEn joko kanpo utzi nahi izan gaituzte patronalaren boterea auzitan jartzen dugulako eta langileak antolatuz mugatu nahi dugulako. Nafarroako apartheid sindikalaren garaiak ere gogora ekar ditzakegu.

(54) Geroz eta jende gehiago dago bazterrean, baina bizitza publikoa erdigunean daudenei begira antolatzen jarraitzen da. Hemen dago, gure ustez, indarrean dagoen sistema eta kapitalak duen estatusa defendatzen duten alderdien nagusitasunaren gakoa. Botereak ezarritako joko zelaian botereak irabazten du beti, eta beraz, eztabaida eta agenda politiko-soziala aldatu behar dugu.

2.2. Mapa politiko, sindikal eta sozialaren bilakaera

(55) Azken zortzi urteetan aldaketa nabarmenak ikusi ditugu Euskal Herriko mapa politiko eta instituzionalean. Hego Euskal Herrian EH Bilduren sorrerak markatu zituen ziklo politiko berrian eginiko aurreneko hauteskundeak. Podemosen sorkuntza izan da bigarren ziklo elektoraleko berria.

(56) Ezker eremuan berritasunak izan dira, baina egia da EAEn PNVk berreskuratu egin duela 2011ko ziklo elektoralean ezker soberanistaren alde galdutako espazioa. Bestalde, emaitza ikusgarriena Nafarroan aldaketarako Gobernu osatu izana da. Mugari historikoa da, zalantzarik gabe, erregimenaren indarrak oposizioa bidali izana hala Nafarroako Legebiltzarrean nola udal nagusietan. Orain erronka aldaketa sendotu eta sakontzea da.

(57) Estatu frantsesean eskuin-ekzerraren lehiak zentralitatea galdu du eta eskuin muturra eta betiko eskuinaren arteko lehia nagusitzen ari da. Ipar Euskal Herria ez dago lehia horretatik kanpo, baina errealitate berezitua du, ezker abertzalearen estrategia aldaketak eztabaida eta elkarlan politikorako egoera berria sortu duelako.

(58) Mapa sindikalean aldaketak atzematea zaila izanik ere, lortu ditugu. Nafarroan CCOO eta UGTk gehiengoa galdu

dute, EAEn LAB eta ELAren nagusitasuna indartu da LABen gorakadari esker. Ipar Euskal Herrian LAB mapa sindikalaren ertzetik erdigunera eraman dugu, itun antisindikala eta CGTren eraso hor egonda ere. Sindikatu abertzaleak krisi garaian indartzea gure eredu eta borroka sindikalaren emaitza da.

(59) CCOO eta UGTren agorpena bistakoa da. Mobilizatorako euskal agenda indartsua nagusitu zen garaian, ez zuten lekurik izan. Estatuko ezker eremutik mobilizazio agenda estatala Euskal Herrira ekarri dutenean ez dute eskaintzarik ezta indarrik ere eduki. CCOOk ordezkartzari eusten dio lantokietan, baina ez du inondik ere lortzen UGTren maldan beherako joeraz baliatzea.

(60) Mugimendu sozialen argakia egitea inoiz baino ariketa konplexuagoa da. Indarrik gabeko mugimendutzat hartzen da mobilizazio handien garaiarekin alderatuz gero, baina azterketa zorrotzagoak egin behar ditugu ikuspegi eratzaille eta eraldatzailetik piskanaka indartzen eta sendotzen doan espazio sozial alternatiboaren inguruan.

(61) Espazio sozial eratzaille eta eraldatzaile alternatibo horren adibidea Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan dugu. Kartaren prozesuan ikusi dugun bezala, espazio hori sartzeko eta antolatzeko aukerak egon badaude, aliantzak egiteko eredu eta modu berrietan asmatuz gero. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, Bilbon, Alternatiben Herria antolatu zuenean, Euskal Herrian espazio alternatibo eta aktibo oso bat badagoela erakutsi zuen.

2.3. Egoera iraultzeko prozesua martxan jartzeko garaia da

(62) Aldaketa politiko eta sozialak lortzeko garaian gaude, ez dugu inolako zalantzarik. "Baldintzak sortu ditugulako", genion orain zortzi urte. "Herriak premia bizia duelako", gehitzen diogu oraingoan. Aldaketa prozesua martxan jartzeko tresnak sortu ditugu eta inizatiba ugari izan dira martxan.

(63) Euskal Herrian botere ekonomikoak agintzen du, baina badago botere hori borrokatzeko gaitasuna duen eremu sindikal eta sozial zabal bat. Botere ekonomikoak agintzen du, baina eremu politiko-instituzionalean ezkerreko esparrua indartu egin da.

(64) Euskal Herria bidegurutzean zegoela esaten genuen orain urte batzuk. Gaur inoiz baino argiagoa da bidegurutze hori: datozen bizpahiru urteetan hartu beharreko erabaki nagusiak botere ekonomikoaren esku utziz gero, '78ko jokaldia errepikatuko da.

(65) Aldaketak ekarriko dituen prozesua martxan jartzea da, gure iritziz, '78ko erregimena gaurkotzeko jokaldia zapuzteko biderik emankorra. Eskuinak, botere ekonomikoak, elite enpresarialak, argi du non dagoen bere estrategia. Aldaketak nahi eta horren alde borrokatzen garen ezker esparruari dagokigu alternatiba politiko sendo bat marraztea, Euskal Herriak bere bidea egin dezan.

3. EUSKAL ESTATUA, EUSKAL SOZIALISMOA ERAIKITZEKO TRESNA

(66) Gure helburua da euskal sozialismora iristea. Gure historian, kulturen eta hizkuntzan oinarrituriko herri anitza sortzea, beste kulturen integratzailea, munduari zabalik. Euskal Herrian lan egiten duten eta bizi diren pertsona ororen eskubiak eta oinarritzko zerbitzu publikoak bermatuko dituen sozialismo identitarioa aldarrikatzen dugu LABetik.

(67) Jendarte, produkzio eta kontsumo eredu berri bat eraiki nahi dugu. Bestelako eredu bat sortzeaz ari garenean, bestela bizi, ekoiztu eta kontsumitzeaz ari gara; ingurunearekin eta beste pertsonekin harremanak izateko bestelako era batez ari gara. Mugarik gabeko hazkunde nahiarekin amaitu eta horri buelta emango dion jendarteaz ari gara. Naturaren kontura ez, baizik eta naturarekin harremanetan biziko den jendartea, ekologikoki iraunkorra den eredu e.a. Horretarako, komunitatearen, herriaren protagonismoa azken bururaino eramane behar da, identitate anitz eta propioak kontuan harturik. LABek aipatutako balio guztien aldeko borroka eta gure herriarekiko konpromiso sahiestezina uztartzen ditu.

(68) Egitasmo politiko horretan, esplotazio era guztien bidez ezarriak izan zaizkigun zapalkuntzekiko —patriarkala, soziala, nazionala— eredu alternatiboa bilatzen dugu. Ez dugu alternatiba egun batetik bestera eraikiko, eta badakigu arazoaren soluziobideak konplexuak izango direla. Edonola ere, ozen esaten dugu ezin dela benetako alternatibarik eraiki esplotazio horren osotasuna gainditzeko asmo, erabaki eta estrategiarik gabe. Euskal sozialismoa da esplotazio mota guztiak baztertu eta bestelako jendarte eredu bat bilatzen duen egitasmo politiko. Euskal Herriari eta euskal herritarrei erantzuten die, eta eredu sozialista, feminista eta euskalduna ardatz du. Herrien arteko elkartzunean sinesten du, borroka berean bat egiten dugun Herrietatik ere elikatzen baita euskal sozialismoa.

(69) Euskal sozialismoa egungo eredu neoliberalaren alternatiba erabatekoa da. Bere oinarrietan honako hauek jasotzen ditu: lanaren ikuspegi osoa, lan produktibo eta erreproduktiboaz egiten den sexu banaketa gainditurik; aberastasunaren banaketa justu eta ekitatiboa; Herrien burujabetzaren errespetua; ekonomia demokratizatzea eta bere kontrol soziala ziurtatzea; naturarekiko harreman berria eta garapen eredu iraunkorra; hizkuntza propioari bere maila aitortzea. Eta noski, eredu sozial justu baterako, pertsonen arteko botere harremanak irauli eta berdintasunean oinarritzea du helburu. Euskal sozialismoak, finean, herritarren bizitza duintzea, botere harremanen iraultza, aberastasunaren birbanaketa eta jendarte prozesuen demokratizazio zorrotza dakartza.

(70) Euskal sozialismorantz urratsak egiteko, egungo egoeratik abiatuta, gure helbururantz bideratuta dagoen sistema-
ren eta jendartearen eraldaketarako estrategiak eta tresnak behar ditugu. Euskal Estatua da tresna, eta sistema aldatzea helburu izango duen burujabetza prozesua da gure estrategia. Bidea urratsez urrats egiteko indarra behar dugu, hor da go funtsa; indar harremanak aldatzeko gehiengo berrien sorreran jartzen du LABek giltza.

3.1. Euskal Estatua, zertarako?

(71) Estatua, helburua baino, tresna da, Euskal Herria politikoki egituratzeko eta sozialki kohesionatzeko, genero bereizkeriaren eta zapalkuntzaren gainetik, euskal ekonomia gure herrian bizi eta lan egiten duten pertsona guztien kontrol politiko eta sozialaren pean jartzeko. Euskal Estatua herritar guztien bizitza duina bermatzeko baliabide politiko, ekonomiko eta sozialak eskuratzeko bide gisa planteatzen dugu.

(72) Oinarri berriak dituen jendarte eredu eta herri askea sortu nahi ditugu. Egia da joera nagusiak kontrako norabidean doazela. Eta ez dugu esan nahi Euskal Estatu batek hori berez aldatuko duenik, baina Estatu bat izan behar dugu, boterea eta tresnak eskuratzeko, bestelako eredu bat bultzatzen duten aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialak egin ahal izateko.

(73) Azken urteetan estatuen papera botere ekonomikoaren mesedetan ahuldu egin da, baina, gaur egun, Estatu bat izateak eskaintzen du munduan burujabetza mailarik handiena; kapital-bizitza gatazka baldintza hobeto konpontzeko aukera ematen digu.

(74) Halaber, Euskal Estatua ezinbesteko bitartekoa da bestelako jendarte eredu bat eraikitzeko. Estatuagintza trantsizio prozesuak, euskal jendarte berri baterantz eraman behar gaitu, zapalkuntza baztertuko duen jendarterantz, hain zuzen ere. Kapitalismo heteropatriarkalaren egituren eraispen prozesua nahiko genukeen baino mantsagoa izango da, baina, prozesua den heinean, bere izaera eta kontrola herritarren esku egon dadin, gure Estatu propioaren bila goaz. Eta bide horretan demokraziaren bertsio erradikalean oinarritutako ikuspegia beharko dugu: Estatua lortzeko, Estatuaren ezauzgarri bilakatzeko, Estatuaren eta estatuagintzaren kontrolari eusteko.

3.2. Nolako Euskal Estatua? Euskal errepublika

(75) Burujabea, eredu ekonomiko eta soziala goitik behera aldatu eta eredu berri bat eraikitzeko helburuarekin diseinatua eta langileek erabakietan parte hartuko dutela bermatzen duena.

(76) Estatuagintza prozesua eraldaketa prozesua da, egoera batetik bestera eraman behar gaituen trantsizio prozesua. Prozesu politiko, ekonomiko eta soziala da, gatazkan izango den prozesua. Prozesu dialektikoa den heinean, egiten dugunaren arabera emaitza izango dugu. Nolako prozesua, halako emaitza. Nolako estatuagintza, halako Estatua.

(77) Bistan da, halako gogoetek ondorio batzuk dituzte: batetik, txanponaren alde batean, ez dagoela egun batetik besterako lorpenik, eta kontraesanak kontraesan lanean eta borrokan jarraitzea dagokigula, trantsizio horietan gure helburu guztiak lortzen ez baditugu ere; bestetik, txanponaren beste aldean, ondo bideratutako trantsizioek baino ezin dezakete helmuga egokia lortu. Aldaketaren emaitza soilik azken gertokian jartzeak emaitza hori ezinezko bilakatzen du.

(78) Beraz, ongi bideratutako trantsizio prozesu dialektiko bat garatzeko ardura dugu. Prozesu horrek dimentsio eta esparru ezberdinak izan beharko ditu. Estatuagintzaz hitz egitean prozesu instituzionalei egin ohi zaie erreferentzia, baina badakigu halako prozesu batek ezinbestean herrigintza esparru zabal eta anitza izan behar duela: herritarren eskutik zuzenean batzuetan, eta eragile sozial, sindikal edota politikoen bidez beste batzuetan; nor bere aldetik batzuetan, elkar ekintzan besteetan.

(79) Langileok interes berezia dugu estatuagintza prozesuan, izan ere, gure helburu sozialak aldaketa honen bidez gauzatu ditzakegu. Langile guztien bizi baldintzen duintzea helburu duen egitasmo politikoak langileen indarra eta esku-hartzea behar du helburua lortzeko. Halaber, aldaketa politiko orokor hori egingarri bilakatuko da eredu sozial berri baten eraikuntzak gizon eta emakumeen interesak defendatzen dituen heinean eta horien guztien babesa jasotzen duen neurrian.

(80) Logika berri honek bizitza erdigunean kokatzen du. Langileriak ongi ezagutzen du merkatuaren logikaren deshumanizazioa, zauriak gure bizitza sustengatzeko lan egin behar dugunok baititugu, izan lan aitortua ala ez. Merkatuaren eta kapitalaren logikaren aurrean gure bizitzaren sostengarritasunaren logika jarriko dugu, gure lan guztien bidez aurrera ateratzen duguna.

4. BURUJABETZA PROZESUA

(81) Estatuak ez dute Euskal Herriaren nazio izaera aitortzen, onarpen horrek erabakitzeko dugun eskubidea aitortzea eta errespetatzea ekarri beharko lukeelako. Ukazioa da Estatu bien estrategia Euskal Herriarekiko. Ukazioaren estrategia ez dago Estatu propiorako bidea egiterik. Ez dago benetako alternatiba bat eraikitzerik langileentzat. Eguneroko bizitzan zuzenean eragiten digun kontua da hau, burujabeak ez izatea garesti ordaintzen dugu herri eta langile moduan.

(82) Estatu bien ukazioak badu alternatiba: guk geuk aitortzea eta geure buruari balioa ematea. Geure buruaren jabe egitea, herriaren borondatean eta erabakitzeko eskubidean oinarritzen den prozesu baten bidez.

(83) Estatuak entzungor egiten dutela esan ohi dugu. Ez da horrela. Ongi irakurtzen eta ulertzen dituzte gure eskakizunak eta asmoak. Azken urteetan inboluzioa da nagusi. Inboluzioa boterearen banaketan eta bere kudeaketan. Zentralizazioa eta inposizioa nabarmen indartu dira. Espainiar eta frantziar Estatuaren eskuetan ez dugu etorkizunik. Estatuak beren burua demokratizatu eta Euskal Herriaren etorkizuna gure esku utziko dutela pentsatzeak ez du inolako oinarri politikorik. Estatuaren boterea auzitan jarriko duen prozesua Estatuaren baimenarekin egin daitekeela esatea iruzur egitea da.

(84) Geure kabuz eta geure ekimenez egindako burujabetza prozesuan kokatzen du LABek Euskal Herriaren egoera politiko, ekonomiko eta soziala iraultzeko bidea. Dependentsiatik independentziara igarotzeko bidea. Eredu ekonomiko eta sozial berria eraikitzeke gehiengoak, tresnak eta ahalmenak eskuratzeko bidea. Burujabetza prozesuan kokatzen dugu gatazka politikoa benetan konpontzeko bidea, baita bere ondorioak gainditzeko aukera ere.

(85) Estatuak ez dute bide hori jorratu nahi; burujabetza prozesuak aldebakarrekoa izan behar du. Burujabetza prozesua konfrontazio prozesua izango da. Burujabetzaren bidea zapuztea izango da euren helburua datozen urteetan, Ipar Euskal Herriaren Elkargo Bakarraren egitasmoa abiapuntu baino, helmuga izan dadin saiatuz, eta Hego Euskal Herriaren martxan den erreforma prozesuaren baitan itozten.

4.1. Burujabetza prozesuaren helburuak

(86) Burujabetza aldarrikatzen dugu gure etorkizunaren jabe izateko. Euskal Herria nazioa da; dagokigun erabakitzeke eskubidea eskuratzeko garaia da, ete geure buruaren jabe egingo gaituen prozesua egitea da horretarako bidea. Ez dugu gure etorkizuna arrotzak zaizkigun Estatuaren eta miseriara kondenatzen gaituen kapitalaren esku utzi nahi. Erabakiak hartzeko gaitasunak eta erabakien subjektu izateak erraztu egiten du gure herriaren eta bertako langileon interesen mesedetan neurri ekonomiko eta sozialak hartzea.

(87) Burujabetza aldarrikatzen dugu egungo sistema errotik aldatzeko, bizitzaren sostengarritasuna erdigunean kokatu ahal izateko, bizitza duinerako eredu sozioekonomikoa eraki ahal izateko. Ordua da gure herriak, subiranotasuna erabiliz, egungo egoera aldatzeko ardura bere gain hartzeko. Ordua da bizitzeko, ekoizteko, kontsumitzeko eta inguru-nearekin nahiz pertsonen arteko harremanetan bestelako eredu bat eraikitzeke. Horretarako komunitatearen, herriaren protagonismoa azken bururaino eraman behar dugu, identitate anitz eta propioak kontuan hartuta. Ordua da suntsipen korrontearen ibilera aldaraziko duen emari ekosozialista eta feminista osatzeko. LABek balio horien guztien aldeko borroka eta gure herriarekiko konpromiso sahiestezina uztartzen ditu.

(88) Burujabetza ere euskal demokrazia eraikitzeke. Burujabetza prozesua demokratizazio prozesu moduan ulertu behar da. Ofentsiba neoliberalari aurre egiteke modua da burujabetza. Lehenik eta behin, botere ekonomikoaren eta politikoaren arteko sinbiosiarekin bukatu behar da, kapitalaren interesen aldeko lerrotzearekin hautsi eta gehiengo garen langileok erabaki ahalmena eskuratu behar dugu. Bigarrenik, bizitzaren interesak erdian kokatu behar dira.

(89) Burujabetza lan mundua aldatzeko. Erabakitzeko eskubidea eta demokrazia lan mundura iritea derrigorrezkoa da herri burujabea izateko. Lan mundua aldatzea, lana bere osotasunean hartuta (aitortzen dena eta aitortzen ez dena), ezinbesteko urratsa da jendarte berri bat eratzeko, baita jendarteak libreki erabakitzeko ere.

(90) Burujabetzak gatazka politikoa behingoz eta betirako konponduko du. Burujabetza prozesua martxan jartzerakoan, bertan kokatu behar dugu ondorioak gainditzeko bidea, gure ekimenez sortuz ondorioak gainditzeko behar diren egoerak eta bideak.

4.2. Burujabetza prozesuaren oinarriak

4.2.1. Herritarren gehiengoak bultzaturiko prozesua

(91) Burujabetza prozesurako baldintzak sortu behar dira; burujabetzaren aldeko hautua geroz eta zabalagoa izatea, hegemonikoa bilakatzea da gure helburua.

(92) Euskal Estatu lortzeko, eta Euskal Estatura eramango gaituen bidea egiteko, euskal jendartearen aldeko indar korrelazio nahikoa badagoela uste badugu ere, egun indar horiek lozorroan daudela iruditzen zaigu, hainbat arrazoiengatik: krisi ekonomiko eta sozial gordin batek kolpatzen gaitu eta egunerokoan jendeak dituen lehentasunak burujabetza prozesuaren beharrarekin konektatzea kostatzen da; horrekin batera, jendartean Euskal Estatuaren aldeko jarrera beste eredu batzuen aldeko jarrerarekin etengabeko konfrontazioan dabil, unionismo eta autonomismoarekin, alegia.

(93) Fase honetan Euskal Estatuaren aldeko jarrerak indartu behar dira, hegemoniko izateraino. Herri honen gehiengoaren adostasunetan eta herriaren aktibazioan oinarritutako aldebakarreko burujabetza prozesua jarri behar da martxan. Ez dago Estatuarekin adosturiko biderik egiteko aukerarik. Aldebikotasunaren aldeko apologia egiten dutenek ere ondo dakite hori, baina modu horretan benetako eztabaidari heldu eta burujabetza prozesua martxan jartzea oztopatzen dute.

(94) Aldebakarreko prozesu soberanistaren bermea, herri honek behar dituen aldaketa politiko eta sozialen bermea, herriaren gehiengoaren atxikimendua lortzetik eta herriaren aktibaziotik etorriko da, herria martxan egon behar da. Instituzioetatik bakarrik ez dago burujabetza prozesua bideratzen.

(95) Herritarrek, zehatzago, herritarren gehiengoa diren langileek izan behar dute prozesuaren motorra. Ez dago gehiengorik langilerik gabe. Langileak, bere zentzurik zabalenean. Langileak burujabetza prozesuaren subjektu aktibo bilakatzeko, pertsona guztion oinarritzko beharrianak bizitzaren erdigunean kokatu behar dira, eguneroko arazoak konpontzeko eta bizi duina izateko bidea dela argi utziz. Errealitate ekonomiko eta sozialak lehentasunezko gaia izan behar du. Horrek, noski, ez du esan nahi herri moduan ditugun eskubideek eta gure hizkuntzak eta kulturak, hau da, kontu identitarioek ere, lehentasuna izango ez dutenik. Burujabetza prozesuari dimentsio berri bat gehitzeaz ari gara.

(96) Estrategia independentista berritzeko momentua da. LABen ustez, mugimendu independentista sendo eta berritua behar da, prozesu eratzailerik eta eraldatzaileak hitz egiteko eztabaida artikulatu eta irekitzea behar-beharrezkoa ikusten dugu.

(97) Burujabetza prozesua martxan jartzeko ezker esparru soberanistan oinarritzko adostasunak eta akordioak eraiki behar dira eta egin beharreko bidea marraztu behar da. Euskal sindikalismo abertzalearen ekarpena ezinbestekoa eta erabakigarria izan behar da.

(98) Gure helburua da burujabetza prozesua datozen bi-hiru urteetan martxan jartzea eta prozesu hori ahalik eta epe muga motzenez muturreraino eramatea.

4.2.2. Prozesu eratzailerik eta eraldatzailea

(99) Burujabetza prozesua aldebakarrekoa eta gehiengoetan oinarritua izan behar dela esan dugu eta, gainera, gure ustez, jarrera independentista ikuspegi eraldatzaile batetik indartu behar da, aurretik aipatu dugun "nolako estaturik gabea,

halako Estatu" leloari jarraiki.

(100) Burujabeak izatera ez gara egun batetik bestera iritsiko, trantsizio prozesu horrek eraldatzailea eta askatzailea behar du izan, nazio-, klase-, genero- zapalkuntza orori aurre egin eta eraldatzeko bidea jorratuz.

(101) Prozesuak, eraldatzailea izateko, kontrabotere espazioak eskatzen ditu. Gatazka desorekatu honetan bi aukera ditugu: espekulatzailer eta errentistek irabaztea ala langileok izatea garaile. Kontrabotere izaera izango duen mugimendu sindikal eta soziala behar da, mobilizazio eta aktibazio ahalmena eta proposamenak egiteko gaitasunarekin. Horrek instituzio eta mugimendu sindikal eta sozialen arteko dialektika eta praktika berria eskatzen du.

(102) Euskal Herrian badugu aliantzak eraikitzekeo abiapuntu egokia, gehiengo sindikal eta sozial batek osatua, egungo egoera zalantzan jartzen dugunon artean, eredu ekonomiko eta sozial berri bat eta eraldaketa sozialerako burujabetza sozial eta politikoa behar dugula pentsatzen dugunon artean.

(103) Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta horretarako bitarteko estrategikoa dugu. LABentzat, Karta tresna garrantzitsua da, prozesu horretarako abiapuntu egokia jartzen baitu.

(104) Trantsizio prozesuak zera hartuko du barne: eratuko duen subjektuaren osaketa, euskal jendartea, aliantza sozio-sindikalak, zuzenduko duen alderdi politiko-instituzionala eta borroka, mobilizazio dinamika eta hura berma dezaketen dinamikak. Prozesu eratzailer behar dugu, onarpen esparruaz eta eskubideen bermez hornitu gaitezen, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan, ikusmolde sozialetik zein sindikaletik, jasotzen diren eskubideak kasu.

(105) Burujabetzarako bidea, aldaketa sozialak ekarriko dituen, prozesu bat izango dela esan dugu, egunerokoan hartzen ditugun erabaki burujabeez elikatu, indartu eta praktikara eramango duguna. Sistema kapitalista heteropatriarkala egonkortu ordez alternatibak elikatu ditzakegu, eguneroko praktikaren bidez, Karta Sozialean jasotzen diren eskubideak gauzatze bidean.

(106) Azken urteotan emankorra izaten ari da bidea eta hainbat adibide ditugu: elektrizitatea kudeatzeko kooperatibak, Euskoa-txanpon alternatiboa, banka etikoa, kontsumo taldeak elikadura burujabetza indartzeko e.a. Eraldaketa prozesua bultzatzeko erabaki garrantzitsuak izanik, bultzatu beharreko bidea dela iruditzen zaigu. Kolektiboki eta norbanako moduan hartzen ditugun erabakiekien joan gaitzke egunez egun eredu ekonomiko eta sozial berri baterako bidea egiten.

4.3. Burujabetza prozesuaren ardatzak

4.3.1. Erabakitzekeo eskubidean oinarritzen diren estatus politiko berriak

(107) Hiru lurralde administratiboetan indarrean dauden marko juridiko politikoek muga argiak dituzte, agortuak daude, ez dute langileon beharriari erantzutekeo bitarteko nahikorik, ez dute aldaketa sozialak burutzeko bitarteko nahikorik. Horrela dio LABek, baita herri honen gehiengo zabal batek ere.

(108) Ipar Euskal Herriaren kasuan ez da inolako eskuduntzarik izan. Urteak dira Ipar Euskal Herriak izaera instituzionala aldarrikatzen duela. Edozein egoera instituzionali gobernuak ez dio sekula erantzun positiborik eman.

(109) Gaur egun ezagutzen dugun egoera politiko berriarekin, jendartea "Estatutu berezituko kolektibitate territorial" baten alde ("Collectivité Territoriale à Statut Particulier", CTSP) posizionatu da. Estatu frantsesak, berriz, proposamen hori errefusatu eta zuzenbide komuneko egitura baten sortzea proposatu dute HELEP, herriarteko lankidetzarako erakunde publikoa (EPCI, établissement public de coopération intercommunale) baten bidez.

(110) Erantzun minimo bat da, baina ofizialtasuna ematen du eta Euskal Estatu baten bideke lehen urratsa da. HELEP horrek ez ditu konpetentzia guztiak izango, baina, bederen, euskal errealitateak kontuan hartuko dituzte eta Euskal Herriaren ezagutzen ditugun egoerak tratatzea bideratuko du, gure aldarrikapenak aurrera eramateko kulturaren, hizkuntzan, garapen ekonomiko eta sozialean. Guk orain erakutsi nahi dugu non eta zertan diren HELEP horren mugak.

(111) Nafarroako Amejoramendua zein EAEko Autonomia Estatutua hasieratik geratu ziren motz, eta gainera, ez dira beren osotasunean garatu. Egungo marko juridiko-politikoaren topeak areagotu egin dira azken urteetan, bi Estatuen birzentralizazio joera dela eta. Estatuetatik datozen erreforma eta murrizketa guztiak onartu eta inposatu egin dira gurean eta dauden eskumenekin egiten diren politika ekonomiko eta sozialak ere (nagusiki PNV eta UPNk izan dituzten gobernu arduetan) ez dira gehiengoaren mesedetan izan, Estatuko eredu neoliberal bera aplikatzen da.

(112) Gaurdanik, eta gehiago itxaron gabe, politika neoliberalak egiteari utzi eta dauden eskumenak gehiengoaren mesedetan politika publikoak egitera bideratu beharko lirateke. Nafarroan, aldaketa sendotu eta sakontzea falta da orain, batetik erregimenaren egitura ustelak eraitsi eta erregimenak utzitako zor publikoa auditatzen; bestetik, eredu sozial, ekonomiko eta politiko berri baten oinarriak jartzen. Norabide horretan, egun dauden ahalmen mugatuak baliatzeaz gain, Foru Hobekuntzak ezarritako mugak gainditu beharko dira. Herri eragileen eta herritarren bultzada funtsezkoa izango da horretarako. EAEn, aldiz, PNVren Gobernuak Estatuarekin alde bikotasuneko bidea jorratu nahian dabil.

(113) Datozen urteetan estatus politiko berriak erdiestea izan behar da erronka, eta apustua, Estatus politiko horiek nazioa gairela aitortu eta erabakitzeko eskubidea jasotzea. Ez da nahikoa eskuduntza gutxi batzuekin egungo Amejoramendua edota Autonomia Estatutua berritzea. Estatuaren jarrera zein den esan dugu, ez dago bide adosturik egiteko aukerarik, ez bada iruzur berri bat egiteko. Estatuarekin konfrontatu egin beharko da, konfrontazio demokratikorako gaiak eta momentuak aukeratu eta ibilbide orria osatuz, eta herria izanik bermea, aktiboki, erabaki horiek sustengatzeko.

(114) Estatus politiko berriak eskuratzeko bidea indarrean dauden hiru errealtate administratiboetatik abiatuta egingo dugu. Hiru prozesu eratzaile eta eraldatzaile izango dira, bakoitza bere erritmoan, baina uneoro ikuspegi nazionala bermatuta.

(115) Gai ekonomiko, sozial eta laboraletan erabakitzeko eskubidea Euskal Herrian izan behar dugu. Gure eremuan erabakitzeko eskubidea, burujabetza eskuratzea da Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua (LHBSEE) eta esparru sozioekonomiko propioa eraikitze bitarteko juridiko eta politikoak eskuratzea. Inoiz baino premia gehiago dugu horretarako.

(116) Lan munduan ere langileen erabakitzeko eskubidea ziurtatuko duen lan harreman ereduaren alde egiten dugu. Erreformaz erreforma lan harreman eredu erabat antidemokratikoa ezarri digute. Euskal Herriko langileen erabaki ahalmena mugatzeko bidean, hor daude negoziazio kolektiborako eskubidea indargabetu eta gure esparrutik urruntzeko ahaleginak eta lan harremanak gero eta gehiago indibidualizatzeko patronal desberdinen saiakerak.

4.3.2. Estrategia sozioekonomiko soberanista

(117) Burujabetza prozesu guzti-guztiek dute estrategia sozioekonomiko bat, prozesuak eraldatzaileak diren neurrian, egoera aldatzeko bidea marraztu behar baita. Prozesu eratzailea izateko egitura eta tresna ekonomikoak sortu behar ditu, estatu bat sortzea helburu duen heinean, estatu guztien oinarria delako proiektu ekonomiko jakin bat garatzea bere komunitatearentzat.

(118) Martxan jarriko dugun prozesuaren estrategia sozioekonomikoa diseinatu eta definitzea esparru soberanista osoaren erronka da eta sindikatuek berebiziko garrantzia izango dugu horretan.

(119) Estrategia sozioekonomikoak finkatuko du gehiengo berriak sortzeko sektore sozial ezberdinei egiten diegun eskaintza. Baita sektore ekonomikoak prozesura batzeko eskaintzak eta proposamenak ere. Estrategia sozioekonomikoari dagokio diseinatzea gaurko eredutik eredu ekonomiko berrirako trantsizioa nola egin.

(120) LABek eskaintza sozioekonomiko argia izan behar du estrategia sozioekonomikoaren eztabaida pizteko. Baita bertan parte hartzeko ere. Gure proposamenak bizitzaren sostengarritasuna erdigunean kokatu eta aberastasunaren banaketa orekatuagoa bermatuko duen eredu ekonomiko eta soziala izango du helburu.

(121) Hurrengo lerroetan gure ereduaren oinarriak finkatuko ditugu. Biltzar Nagusiak ardatz hauek onartu eta gero, gure

eredu sozioekonomikoak eskatzen dituen berrikuntzetan sakonduko dugu.

(122) Proposamenaren ardatzak. Aberastasuna gero eta jende gutxiagok pilatzen du, bidezkoa ez den banaketaren ondorioz. Honek desberdinkeria ekonomikoa eta genero desberdinkeria sorrarazten ditu. Gure jendartean eta gure herrietan duintasunez bizi ahal izateko enplegua, lan baldintza duinak, kalitateko zerbitzu publikoak edota prestazio sozialak eskuratzea galarazten du. Demokrazian bizi nahi duen edozein jendartek demokrazia horixe bera bermatu behar du produkzio harremanetan eta lanaren bitartez sortzen duen aberastasunaren banaketan.

(123) Lan Harreman eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua (LHBSEE). Lan harremanetarako eredia funtsezkoa da garapen eredia eraikitzeko. Eredua horren baitan, aberastasunaren birbanaketarako sortzen den errentaren inguruko gatazkatik, arlo sozio-laboralean euskal erabakitze-esparruaren errespetua bermatzea ezinbestekoa da: enplegu politika aktiboak, lan-bitartekaritza, enplegu politika pasiboak (langabezia-prestazioak) eta babes soziala, lan osasuna, lanbide-heziketa etengabea eta lan-ikuskaritza.

(124) Fiskalitate progresiboa: zerga politika progresiboak eta zerga ekitateak ekarri behar dute denok eskala mailakatu batez errentari loturiko zergak eta ondarea ordaintzea, edozein dela ere haren jatorria. Aurrekontu politikak euskal jendartearen eskubideen bermea lehenetsi behar du, beste finantza arazoien edota erakunde-menpekotasun irizpideen gainetik.

(125) Garapen endogeno eta iraunkorra: garapen eredu honek sektoreen oreka eta Euskal Herriko lurralde guztien arteko lotura eta bertoko biztanleriaren barne-gaitasunak bultzatu nahi ditu, ekoizpen- eta kontsumo-ehuna sortzearen laguntzaz. Ekoizpen soziala handitzea, lan erreproduktiboa enpleguari eranstea, desberdinkeriak zuzentzea eta iraunkortasun ekologikoa bilatzea dira bere asmoak.

(126) Euskal Herriko lurralde egituraketa soziala:


(127) - Sektore publikoa: Eredu ekonomikoaren motorra izango den sektore publiko indartsua behar dugu. Estrategia integral baten bitartez, ekoizpen eredu berri bat itxuratzen hasteko, alegia, oraingo erronkei erantzuteaz gain ekoizpenaren eraginkortasuna eta langileen bizi-baldintzak hobetuko dituen ekoizpen-eredu berri bat eraikitzeko.

(128) - Lehen sektorea: Guk eta hemen erabaki behar dugu zer eta nola produzitu nahi dugun. Euskal Herrian definitu behar dugu zein den gure elikadura sistema eta zein izango den gure herriko nekazar eta arrantza politika. Horretarako, baserriar eta arrantzaleekin aliantzak sortu behar ditugu elkarlanean aritzeko elikadura burujabetza bidean. Arrantzari dagokionez, politika eraginkor baten alde egiten dugu, arrantza dibertsifikatzeko, euskal ontziteriaren balio-aniztasuna sustatzeko, lizentziak hemen bertan kudeatzeko eta espezieak babesteko helburuz (kalak nahiz arrantza arteen erabilpena zaintzen).

(129) Horrekin lotuta, egungo jangelen eredia agortuta dagoela egiaztaturik, LABek jangelen eredu berri batez estrategia jarri du martxan. Helburua da kontzeptu asistentzialetik hezitzaile igarotzea. Jangelen eredu berri honek elikadura burujabetza jasotzen du beste oinarri batzuren artean eta ekarpena egin behar die gure portuen bizirauteari, arrantza eta nekazaritza sektoreari, lehen sektorean enplegua sortzeari, produkzio agroekologikoari, tokiko ekonomiari eta gure ingurumenaren zaintzari.

(130) - Ekonomia soziala: Euskal lurraldean eta ekoizpen sisteman ekonomia soziala garatzearen aldeko hautua egiten dugu, enplegua sortzeko, parte-hartzean erabateko demokratizazioa gauzatu dadin eta bazkideek proiektu estrategikoa finkatzeko aukera izan dezaten.

(131) - Industria sektorea: Industria-enpresa publikoaren eta euskal ekoizpen ehunaren garapenean inbertsio publikoak zuzenean egitearen aldeko apustua; produktuen dibertsifikazioa eta balio erantsia; langileen egonkortasuna, sustapena eta prestakuntza; politika publikoen diseinuan partaidetza eta baliabide publikoen ebaluazioa.



(132) - Zerbitzuen sektorea: Azken urteetan egundoko gorakada izan du sektore honek, lehenik kontsumoari lotuta (merkataritza), batez ere erostetxe handien aldeko apustua egin da tokian tokiko merkataritza txikiaren kaltetan; bigarrenik, turismoari lotua (ostalaritza), eta azkenik, lan kostuak merketzeko helburuz, azpikontratazioaren bidez beste sektoreen (publiko eta industrialaren) lanak egitearen ondorioz. Horregatik guztiagatik, sektorearen ezaugarriak lan baldintza prekarioak eta sektorearen feminizazioa dira.

(133) Beraz, bestelako eredu baten aldeko apustua egin behar dugu, neurri gabeko kontsumoan alde batera utzita, merkataritza txikiaren aldeko apustua eginez, "jaietan denok jai" izatea bermatzeko helburuz edota neurri gabeko pribatizazio eta azpikontratazioarekin bukatzeko xedez. Honek guztiak enplegua duintzea ere ekarriko du.

(134) - Finantza sektorea. Banku publikoaren aldeko apustua egiten dugu. Nafarroan eztabaida irekia dago. EAEn Kutxabanken kontrol publikoa berreskuratzearekin batera, Kutxabank-ek eta Euskal Herriko beste finantza-erakunde batzuek baliabide gehiago bideratu behar dituzte euskal ekoizpen-ehuna indartzera. Beharrezkoa da Kutxen eginkizuna garapen endogenoaren ikuspegitik defendatzea, hau da, euskal aberastasun sozial eta produktiboa sustatzearen ikuspegitik.

(135)- Kultura eta hizkuntza: gure historian, kulturen eta hizkuntzan oinarriturik sortuko den herri anitza izan nahi dugu; beste kulturen integratzailea, munduari zabalik egongo dena eta Euskal Herrian bizi eta lan egiten duen pertsona ororen eskubideak ziurtatuko dituen, hain zuzen ere.

(136)- Azpiegiturak: Garraioaren azpiegiturak eraginkortasun sozialean, intermodalitatean eta lurraldearen berrantolaketan oinarrituko dira, non erradialki, osoki eta zentralizatu gabe, zerbitzuak edonork eskuratu ahal izango dituen. Mugikortasun garbia erraztuko da, energia berriztagarrietan eta garraio publikoan oinarritua. AHT moduko azpiegiturak geldiarazi eta tren garraio bidezko euskal sareari buruzko adostasun soziala eraiki behar da.

(137) - Energia: Murriztu dezagun energia kontsumoa, energiaren ekoizpena energia berriztagarrietan eta ordezkoetan oinarrituta. Klima aldaketa eta berotegi-efektuko gasen isurketa eragotzi eta ekoizpen, merkaturatze eta energia kudeaketa ereduaren aldaketan oinarritzen den energia-trantsizioaren aldeko apustua egin.

ONDORIOAK - EBAZPENAK

LAB MUNDUAN ZEHAR – NAZIOARTEKO LERROA DATOZEN URTEETAN

(138) LAB nazioarteko mapa sindikalean ezaguna eta aitortua da: FSMko Kontseilu Presidentzialeko kideak gara, aldebiko harremanak ditugu mundu osoan zehar, nazioarteko erakundeetan sartzen hasi gara eta, sindikatuekin ez ezik, sistemaren kontra borrokatzen diren elkarte eta plataforma askorekin ere harreman estuak ditugu (Europar bereziki).

(139) Garai berriari begira nazioartean egingo dugun interbentzioak helburu hauek izango ditu:

(140) - LABen proiektu sozialista gaurkotzeko, elikatzeko eta gorpuzteko nazioarteko aliantzak indartzea. Behar beharrezkoa da ezker eremuan eztabaida sustatzea eta indartzea, nazioarteko erreferentziak sortzea. Funsezkoa da ezkerreko sindikalismoa plazara ateratzea hemen eta munduan proiektu berri eta berritzaileekin sistema sozialistaren aldeko jarrerak zabaltzeko langileen artean.

(141) - Bestelako Europa eraikitzeke borrokari lehentasuna emango diogu. Europar badaude CESeK aldarrikatzen duen sindikalismoa alboratzen duten sindikatuak, badaude Troikaren politiken kontrako mobilizazio soziala bultzatzen duten elkarte eta plataformak, badago bestelako Europa eraikitzeke eztabaida erreal.

(142) - LABentzat lehentasuna izango da Herriek osatzen dugun Europa sozialaren aldeko lerroa gaurkotzea eta Europar ditugun harremanak indartzea.

(143) - Transnazionalen boterea mugatzeko borrokari garrantzia berezia emango diogu. Bi norabidetan egingo dugu lan: nazioarteko itunen kontra mobilizatzen eta transnazionalen aurrean egin dezakegun interbentzio sindikala arakatzeko.

(144) Harreman estuak ditugu sindikatu alternatiboekin Estatu espainolean eta frantsesean. Gaur harremanak direnak epe motzean aliantzak izateko lan egingo dugu:

- Estatu frantsesean jarrera kolonialisten kontra egiteko sindikalismotik.
- Estatu espainiarrean Herrien askapenean oinarritzen den haustura demokratikoaren alde egiteko norik bere herrian eta, guztiok batera, Estatuaren kontra.

(145) LAB sindikatu internazionalista da. Esan baino, izan; esan baino, egin. Nazioarteko elkartasuna bideratzeko eta indartzeko Kooperazio Fundazio bat sortzea da gure asmoa. Igor Urrutikoetxearen omenez, "Urruti Fundazioa" izena jarri nahi diogu. Biltzar Nagusiaren oniritzia jasoz gero, bi urteko epea hartuko dugu martxan jartzeko.

LAB EUSKAL SOZIALISMOAREN ERAIKUNTZAN

(146) Mugimendu independentistaren erronka da ezker independentista berria osatzeko bidea egitea.

(147) Euskal sozialismoa eraikitzeke prozesuan praktika sozialistak zabaltzea eta indartzea langileen artean; jendarte eredia aldatzeko borrokan urratsa hortxe kokatzen dugu, behetik gora eraiki beharreko euskal sozialismoa den neurrian.

LAB EUSKAL HERRI BURUJABERA ERAMANGO GAITUEN BIDEAN

(148) Gure helburua burujabetza prozesua datozen bizpahiru urteetan martxan jartzea da eta prozesu hori ahalik eta epe muga motzenez muturreraino eramatea.

(149) Euskal Herrian demokrazia edo '78ko erregimenaren artean hautatu behar da berriro. LABek haustura demokrati-koaren alde egiten du argi eta garbi.

(150) Burujabetza prozesua martxan jartzea da Euskal Herrira demokrazia ekartzeko bidea. Euskal eragileen ekimenez herrian oinarritutako burujabetza prozesua martxan jartzea da apurketarako estrategiarik hoberena, Estatu bien jokaldietan ez itozteko.

(151) Karta Sozialean marraztu dugun Euskal Herriak ez du lekurik Estatu espainol eta frantsesean.

(152) Erabaki politikoak baldintzatzeko helburuz jardungo dugu estatus politiko berrien eztabaidan. LABek bi eskakizun egingo ditu estatus berriaren auzian:

- Erabakitze eskubidea aitortzea Euskal Herriari eta herritarren erabakitze eskubidean oinarritzen den eredu politikoa ezartzea dagokion eremu instituzionalean.
- Eredu sozioekonomiko propioa garatzeko ahalmenak eta bitartekoak ziurtatzea.

(153) LABek burujabetza prozesu eratzaille eta eraldatzailea martxan jartzeko palanka izan nahi du.

(154) Euskal Herrian egoera sozial eta politiko berriak sortzeko gai izango den langile mugimendua berrosatzearen alde egiten dugu. Mugimendu soziosindikal zabala eta sendoa osatzearen aldeko urrats gehiago egiteko lerro sindikala marraztuko dugu.

(155) Datozen urteetan —urte erabakigarriak izango dira— langileriaren aktibazioa eta mobilizazioa bultzatuko ditugu, horixe delako iruzur politiko berriei aurre egiteko biderik emankorra.

(156) Burujabetza prozesuaren estrategia sozioekonomikoa adosteko inizatibaz jokatu dugu. Gure proposamena osatu eta kaleratu dugu epe motzean. Eremu soberanistan adostasunak eraikitze eta lankidetzaren nagusitzeko proposamenak ere egingo ditugu.

5. EREDU SINDIKALA

5.1. Bizitzaren sostengarritasuna erdigunera ekarriko duen eredu sindikala

(157) Esan dugu inposatzen zaigun eredu sozioekonomikoa ez dela iraunkorra eta sistema errotik aldatu nahi dugula. Gerrak, migrazio fluxu masiboak, natur baliabideen agorpena, desberdinkeria gero eta sakonagoak, beste bizitza batzuren kontura bizitzea... horiek guztiak ondorioak dira, kapitalaren metaketa ezaugarri eta helburu duen sistemaren diru gosearen ondorioak. Guztiei erantzuteko sindikalismoak gogoeta sakona egin behar du, bere burua berritzatzeko. Hori da eredu sindikal berriaren alde LABek eginiko apustua.

(158) Bizitzaren pekarizazioari aurre egin eta bizitzaren sostengarritasuna, bizitza duinerako eskubidea erdigunean jarririko duen eredu berri bat eraikitzea goaz. Kapitala eta merkatuak erdigunean kokatuz bizitza erdigunean jartzera pasatu behar dugu, eta horrek lan guztien aitortza eta defentsa egitea dakar. Defendatzen dugun ereduak biziaren iraunkortasunari eman behar dio lehentasuna. Bizia erdigunean kokatu eta pertsonen zein lurraren zaintzari lehentasuna ematea dagokio, balio horiek errespetatzeari esker etorkizuna izan dezagun, bai pertsona gisa, bai herri gisa.

(159) Honek guztiak, ikuspegi ekosozialista eta ekofeministatik hazkundera zalantzan jartzera eramaten gaitu. Ekoizpen medioen jabetza erdua zalantzan jarri behar da, jarduera ekonomiko eredu horretan gutxi batzuren berehalako irabaziaz daude erdigunean, horiek dira ereduaren funtsa. Ekoizpen medioen jabetza sistemaren birproduktiorako oinarritzekoak diren faktore bik ezartzen dute: teknologia berriek eta energia ekoizpenak. Epe laburrean irabaziaz lortzeko kostu sozial eta ingurumen kostuak esternalizatzen dira eta horrek berebiziko eragina dauka energia sortzeko erabiltzen diren baliabide naturalen agorpenean. Era berean, energia ekoizteko alternatibak garatzea galarazten du, energia bide mugagabeak, birrerabilgarriak, askoz eraginkorragoak eta jendearentzat eskuragarriagoak izango liratezkeen energia alternatibak, alegia.

(160) Esan dugunez, LABek eskaintza sozioekonomiko argia izan behar du. Eta inizatibaz jokatu du Euskal Herri berria eraikitzeke estrategia sozioekonomikoa marraztu dezagun. Bi egitasmo hauek gure erreferentzia estrategikoak izango dira gure eredu sindikalaren bilakaeran.

5.2. Kontrabotere sindikalismoa

(161) Aipatutako eredu ankerretik eredu berrira igarotzea prozesu bat izango da. Baina, batez ere, aldaketak ez dira kontsentsuz izango, aldaketak behartu egin behar ditugu konfrontazioaren bidez, langileak aktibatuz.

(162) Datozen urteak, esparru politikoan zein sozialean, gatazka urteak izango dira. Estatuarekin eta kapitalaren interesak defendatzen dituztenekin bide adostua egitea ezinezkoa da.

(163) Prekarietatea izugarri hedatu da, prekarietatea kapitalaren dominazio sistemaren tresna da, kapitalak langileon kontra erabiltzen duen tresna. Langileok erabat babesgabe utzi nahi gaituzte; erreforma eta murrizketen bidetik kapitalari gero eta bitarteko eta erabaki ahalmen gehiago ematen zaizkio, langile eta sindikatuoi gure eskubideen defentsarako bitartekoak mugatzen dizkiguten bitartean. Bide horretan erasorik larrienean negoziazio kolektiborako eskubidea ezerezean utzi dute.

(164) Bitartekorik gabe utzi gaituzte, lapurtu egin dizkigute, eta geratzen zaizkigun apurrak ez dira eraginkorrak, indar korrelazioak patronalaren aldekoak direlako erabat. Erreformaz erreforma, joko zelaia gero eta txikiagoa da eta joko zelai horretatik kanpo gero eta langile gehiago daude.

(165) Egoera horren erantzukizunaren zama sindikatuon bizkar gainean jarri nahi da. Azken urteotan komunikabide nagusienek, patronalak eta elite politikoen zuzenduta, sindikalismoa desprestigiatzen ari dira, gure funtzioa auzitan jartzen da. Sindikalismoa auzitan jartzen duten horiek ez dute alderdi politikoen funtzio soziala auzitan jartzen, ez dute zalantzan jartzen alderdi politikoa behar direnik.

(166) Behin eta berriz zalantzan jartzen da gure eraginkortasuna. Zoritxarrez, gero eta langile gehiagok bat egiten dute ideia horrekin eta langileen artean ideia hori nagusitzea sistema kapitalistaren beste garaipen bat gehiago izango litzateke. Garaipen itzela, langilegoa umezurtz utziko lukeena.

(167) Sistemak langileria zatitzeko bere ofentsiban sakatzen zuen bitartean, sindikalismoak ez du eraso horri aurre egiten asmatu. Esan daiteke, nolabait, sistemak sindikalismoari aitortutako joko zelaian eta jokalariekin jokatzera mugatu dela. Historikoki bere indargune izan diren eremuetan gotortu eta langileriaren esparru edo sektore oso zehatz batentzako bitartekoa izan da nagusiki: industriako langile gizona finkoentzat.

(168) Sindikalismoak bereziki "lan baldintza hobeko" (industria zein zerbitzu publikoetako langileak) kokatzen diren langileei begira egoteak langileriaren parte diren gainontzeko sektore askorengan, batez ere lan baldintza prekarioagoetan daudenengan (ABLEetako langileak, behin behinekoak, azpikontratatuak, lanaldi partziala dutenak...), sindikalismoarekiko desafektzioa eta urruntasuna eragin ditu, ez baitute egungo sindikalismoaren eremuan leku propiorik topatzen.

(169) LABen, egoera honen jabe, "Birpentsatzen" gogoeta prozesua gauzatu dugu eta bertan ateratako kezka eta erronken norabidean kokaturiko ekintza sindikal berria martxan jartzeko urratsak egin ditugu. Pauso berriak ematen joan behar dugu, ukazina baita egoera berrietara egokituriko eredu sindikala behar dugula. Bizitza erdigunean kokatu, langile klasea bere osotasunean kontuan hartu eta bere berrosaketa bultzatuko duen sindikal gintza inoiz baino beharrezkoagoa da; inoizko kontrabotere sindikal gintzarik indartsuena behar da.

(170) Kapitalak legearen indarra du eredu ekonomiko eta sozial anker eta bidegabean sakontzen jarraitzeko. Indar horretaz baliatuta eta instituzio eta komunikabide nagusien laguntzaz, kapitalismoak alternatibarik ez duela sinestarazi nahi digute.

(171) Sistema horretan integratu nahi gaituzte. Sindikatuoi aitortzen zaigun zeregin bakarra da elkarrizketa sozialeko marko antzuetan parte hartzea, egun langileontzat inolako aukerarik eskaintzen ez duten markoetan, hain zuzen ere. Guk aldaketa sozialak nahi ditugu, ez dugu sistemaren parte izan nahi.

(172) Horretarako, konfrontazioan sakondu behar dugu, kapitalaren boterea mugatu, boterea borrokatu kapitalari. Mobilizazio gaitasuna handitu eta alternatibak proposatzea dagokigu, alternatibak izan, badirelako.

(173) Ez da bide erraza izango. "Integratu" nahi ez izatea, amore ez ematea eta men ez egitea zigortu egiten da, protesta eta disidentzia ezabatu nahi dituzte. Langileon kontrako eta mobilizazio sozialaren kontrako neurri guztiak erabiltzen dituzte enpresa barruan lan sindikala oztopatzeko eta kalean erantzuna mugatzeko, isilarazteko, ezkutatzeko, jendearen artean beldurra eta etsipena zabaltzeko asmoz.

(174) Borrokaren kriminalizazio orokorra gertatzen ari da eta, bereziki, kontrabotere sindikalismoaren aurka. Indarrean den eredu ez da demokratikoa, desoreka erabatekoa da kapitalaren alde eta oraindik gehiago nahi dute. Erdetik kendu nahi gaituzte.

(175) Konfrontazioa ere indartu behar dugu, egoera honetara ekarri gaituzten politikak aldatzeko. Instituzioak interpelatzen jarraituko dugu, jendartearen gehiengoaren alde jar daitezten eta ez elite ekonomiko baten mesedetan.

(176) Gakoa langileen aktibazioan dago. Lantokietan, kalean, bakarrik, beste eragileekin egiten dugun borrokaren integritasuna ulertu behar dugu eta dagokion dimentsio politikoa eman. Eredu berri baten aldeko borroka dira guzti-guztiak.

(177) Euskal Herrian ere premiazkoa da mobilizazioa areagotzea, esperientzia eta proiektu alternatiboetan sakontzea, inork ez baitigu oparituko alde zuri, herri moduan, badagokigun burujabetza, ezta gure lan eta bizi baldintzen hobekuntza ere. Gatazka desorekatu honetan bi aukera daude: espekulatu eta errentistek irabaziko dute ala langileok irabaziko dugu. Mugimendu soziosindikalari dagokio egoera aldatzea, beste inork ez baitu egingo.

5.3. Klase subjektu berriaren osaketa bultzatu

(178) Langilegoaren indarra kolektibotasunean datza. Hori ondo daki sistema kapitalista heteropatriarkalak, horregatik bere estrategiaren ardatzetako bat beti izan da langile klasea zatitzea. Subjektua bereizturik, identitatea eta kolektibotasuna bera desitxuratu eta desegituratzen dute.

(179) Hainbat errealitate desberdin daude, hainbat bereizketa egiten dira: lan produktiboa eta erreproduktiboa, langabeak eta landunak, finkoak eta behin behinekoak, lanaldi osoa edota lanaldi partziala dutenak, enpresa nagusiko eta azpikontratako langileak, gizarte segurantzako errejimen orokorrean daudenak eta errejimen berezituak dituztenak (etxeko langileak, autonomoak..), aniztasun funtzional edota sexu-generikoagatik askotan diskriminatuak diren langileak, sexuan dabilzan langileak, migranteak, lan munduan sartu-irtenean ibiltzera kondenatuak daudenak, euren etxetako langileak eta beste hainbat errealitate ditugu langile klasearen baitan.

(180) Askotan interes kontrajarriak izango balituzte moduan ikusten dute euren burua errealitate desberdin horietako langileek, edo, kontrajarriak izatera heldu ez arren, kosta egiten zaigu errealitate desberdinen artean interes amankomunak ditugula ulertu eta borrokak konpartitzea.

(181) Langileen artean atomizazioa eta indibidualizazioa lortu dute eta bide horretan sakontzen jarraitu nahi dute. Hori patronal guztien nahia bada ere, urrats bat harago joan dira Confebask eta ADEGI. Gipuzkoako patronala izan zen aitzindaria enpresa eredu berrirako proposamena egin zuenean; ondoren, Confebasken proposamena etorri zen. Bi proposamenetan sindikatuen interlokuzioa ahuldu eta lan baldintzen indibidualizazioaren aldeko apustu argia egiten da. Honek guztiak klase pertenezia desitxuratzen du. Ez da kasualitatea bi patronal horiek izatea aitzindariak; bertoko errealitate sindikalari erantzuten dio, EAEn gehiengoa den kontrabotere sindikalismoa ahultzea baita bi proposamenen helburua.

(182) Zeregin nagusia da ekintza sindikal integrala garatzea, langilegoaren —erabat zatitua eta gero eta indibidualistagoa— berrosaketa eta aktibazioa bultzatzeko. Horretarako, diskurtso, eskaintza, praktika sindikal, borroka eta antolakuntza molde egokiak izan behar ditugu. "Norbere borrokak, denon borrokak. Denon borrokak, norbere borrokak". Klase elkartasuna bultzatzea ezinbestekoa dugu.

(183) Langileria kontzeptuaren baitan integratu behar ditugu kolektibo desberdinak eta garatu behar dugu ildo sindikal bat zeinak kolektibo desberdin horiek parte sentiaraziko dituen. Lana bere osotasunean aitortu eta kolektibo desberdinen beharrei erantzungo dien ekintza sindikal berria egitea da gure helburua. Langilego osoak ikusi behar du LAB bere interesak defendatzeko sindikatu moduan. LAB langile sektore desberdinen tresna izatea nahi dugu. Horrek gure eskaintza berritzea suposatzen du.

(184) Gogoeta hauek ez dira berriak sindikatuan, erabakiak izan behar dira berriak. Dagoeneko egindako hainbat urrasetan sakondu behar dugu. Datozen bost urteak esatetik egitera igarotzeko urteak dira.



6. Ekintza sindikal integrala

(185) Ekintza sindikal integralaz hitz egiten dugunean, bizitzaren prekarizazioari aurre egin, langileen berrosaketa bultzatu eta bizitzaren sostengarritasuna erdigunean kokatuko duen ekintza sindikal eta sozialaz ari gara.

(186) Kapitalaren ofentsibaren fase honetan, bizitzaren elementu prekarizatzaile handienak lan munduko desberdinkeria eta prekarietatea dira, baina bizitzaren prekarizazioaz hitz egiten dugunean hori baino gehiago adierazi nahi dugu. Soldatapeko langileen lan baldintzen defentsa bere eredu sindikalaren erdigunean eta ia ardatz bakar moduan duen sindikatua izatetik, bizi baldintza duinen aldeko borroka erdigunean kokatuko duen sindikatua izatera pasatzeaz ari gara. Orain arte ekintza sindikala berritzeko hartutako erabakietan sakontzeaz eta erabaki berriak hartzeaz ari gara, hain zuzen ere.

(187) Sindikatuak bere eguneroko borrokekin bizitzaren prekarizazioari aurre egiten dio. Soldata duinak, lanaldi murrizketa, diskriminazio egoera desberdinekin amaitzea, lan osasunerako eskubidea defendatzea, malgutasuna mugatzea, sektore publiko indartsu baten alde egitea, pentsio duinak defendatzea e.a. dira sindikatuak bizitzaren prekarizazioaren aurka egiten dituen borroka nagusiak. Borroka horiek eraginkortu nahi ditugu eta, batez ere, gurea kolektibo guztientzako eskaintza dela bermatu.

6.1. Lan banaketa eta aberastasun banaketaren aldeko borroka

6.1.1. Enplegua sortu-lana banatu

(188) Enplegua defendatu: langileak kaleratzea oso erraza da enpresarientzat, kalerapenak libreak direla esan dezakegu eta gero eta merkeago ateratzen zaie, gainera. Enplegu suntsiketa geratzea eta enplegua defendatzea LABentzat lehenetsuneko borroka da eta izango da. Honako urratsen alde ariko gara:

(189) Enplegua banatu: 35 orduko lan astea. Enplegua sortu, lanaldi partzialetan aritzen direnentzat duindu, aberastasuna banatu eta langileon bizi baldintzak hobetzeko neurria da. 35 orduak ez dira helmuga, lanaldi murrizketa handiago defendatzen dugu lan guztia kontuan hartu eta banatu ahal izateko.

(190) Zaintza lanak sozialki aitortu eta banatu, benetako kontziliazio neurriak eta korresponzabilitatea landuta.

(191) Jubilazio adina 60 urtera aurreratu behar da.

(192) Aparteko orduekin amaitu, enplegua suntsitu den garaietan hainbat lekutan aparteko orduak ugaritu dira, sarri askotan duinak ez diren soldatak hobetzeko.

(193) Enplegu publikoa sustatu: Europan aurreratuenak diren herriekin alderatuz gero, enplegu publikoaren batz bestekoaren azpitik gaude. Gastu publikoa ere azpitik dago. Beraz, osasun, hezkuntza eta babes sozialeko gastua igo egin behar da, antzeko errenta per capita duten herrialdeen BPGaren portzentajearekin parekatu arte; egun oraindik garatu gabe dauden zerbitzu publikoak ere garatu daitezken eskatzen dugu.

(194) Enplegu publikoa pribatizatzeke joerarekin amaitu eta pribatizatutako zerbitzuen errebertsioa bultzatu behar da.

(195) Enplegu berdea sustatu: datozen urteetan enplegu duin berriak sortzeko apustua eginda.

(196) Behar dugu eredu bat zeinak ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatu eta ingurumena errespetatuko duen. Ga-

raia da Espainiar estatuarekin konparatzeari utzi eta Euskal Herrikoaren antzeko eredu produktiboa duten lurraldeetan arreta jartzeko. BPGaren portzentaje handiagoa bideratu behar da inbertsio, garapen eta berrikuntzara.

6.1.2. Enplegua duintzeko neurriak

(197) 1.200€ko gutxieneko soldata (Hego Euskal Herrirako): egun enplegu bat edukitzeak ez du bizi proiektu duina bermatzen, gero eta gehiago dira langile pobreak. Pobreziari aurre egiteko neurria da Europako Karta Sozialeko gomendioei jarraiki, 1.200€ko gutxieneko soldata ezartzea.

(198) Soldata diskriminazioarekin eta soldata eskala bikoitzekin amaitu behar da.

(199) Azpikontratazioa mugatu: egun prekarizazio elementu nagusien artean daude zerbitzu publikoen pribatizazioa edota enpresa pribatuek egiten duten azpikontratazioaren erabilpen neurrigabea.

(200) LABen helburua da pribatizatuak dauden zerbitzu publikoak publikatzea, alegia, errebertsioak burutzea, eta hori gauzatu bitartean, egun azpikontratetan lan egiten duten langileen lan baldintzak duintzeko klausula sozialak ezarri behar dira. Legebiltzarretan onartutako legeek ez diete langileei berme nahikorik eskaintzen, lege berriaren premia dago.

(201) Azpikontratazioa ez da sektore publikora mugatzen den zerbait, eremu pribatuan ere izugarri hedatu da azken urteetan eta, kasu honetan ere, gure helburua langile horiek berriro enpresa nagusiko langile izatera pasatzea da, inolako enplegu galerarik gabe. Helburu hori lortzeko bidean, azpikontratetako langileen lan baldintzak duintzeko borroka egingo ditugu.

(202) ABLEetako langileen inguruan ere gauza bera. ABLEAk desagertu egin beharko lirateke; norabide horretan, erabiler mugatu eta bertako langileen lan baldintzak hobetzeko proposamenak egingo ditugu.

(203) Malgutasuna: erreformek lanaldia nahieran antolatzeko eta malgutzeko aukera izugarriak eman dizkiete enpresari. Enplegua bermatzeko eta kontziliazioa bultzatzeko bitarteko moduan saldu nahi bada ere, patronalak nahi duen moduan erabiliz gero, enplegua suntsitzen du eta lan baldintzak ikaragarri kaskartzen ditu. Neurririk gabeko malgutasunari mugak jarri behar zaizkio.

(204) Lanaldi partzial inposaturik ez. Egungo lanaldi partzialen %77,8 emakumezkoek betetzen dituzte, eta horietatik gehiengoak ez euren horrela erabaki dutelako, bestelako eskaintzarik egin ez zaielako baizik. Emakume askok lanaldi partzialeko hainbat lan egitera behartuak ikusten dituzte euren buruak, gutxieneko soldata bat jasotzeko.

(205) Gutxieneko lanaldia arautu. Ordu kopuru zehatz batetik beherako jardunaldiak edo lanaldi osoaren ehuneko zehatz batetik beherako lanaldi partzialak galarazi behar dira, Europako beste herrialde batzuetan egiten den moduan.

(206) Behin-behinekotasuna mugatzeko neurriak: kontratu gehienak ez dira finkoak eta kontratazioan izugarritzko iruzurra egiten da, askotan behin-behineko kontratuak bata bestearekin lotzen. Ondorioz, langile askok eta askok ez dute inolako egonkortasunik.

(207) JAI egunetan JAI. Jai egunetan komertzioak irekitzearen kontrako borrokan jarraituko dugu LABen, bakarrik edota beste eragile batzuekin batera. Batetik, dendari handiei bakarrik mesede egiten dien merkataritza eredu babesten duelako eredu horrek, eta bestetik, langileen lan baldintzen prekarizazioa baino ez dakarrelako jai egunetan irekitzeak.

6.1.3. Diskriminazio egoerekin amaitu

(208) Emakume eta gizonen arteko parekidetasuna eta eskubide berberak lortzeko, berdintasunik eza arazo estrukturala den neurrian, diskriminazioak sortu, elikatu eta iraunarazten dituen sistema kapitalista heteropatriarkala auzitan jartzea ezinbestekoa da.

(209) Lan erreproduktiboan aitortzarik ezak eragin zuzena du emakumeon bizi baldintzetan. Lan munduan ere "bi-

garren mailako" bilakatzen gaitu. Lan merkatuan, emakumeek egiten dituzten lanek balio eta aitortza sozial gutxiago daukate eta prekarioagoak dira, feminizatu egiten dira; sexuaren araberako lan banaketagatik geratzen da hori guztia. Feminizatutako lanei eta zaintza lanei balioa eman behar zaie.

(210) Trantsizio prozesuan diskriminazio egoerak gainditzeko neurri ausartak eta eraginkorrak ezarriko dituzten lege feministetara pasatu behar gara.

(211) Lan munduan sartzeko kontratazio berrietan egiten den diskriminazioarekin amaitzea ere beharrezkoa da.

(212) Aniztasun sexu-generikoa: kolektibo guztiek, izan emakume, gizon edo gorputz disidente, lan munduan berdintasunean aritzeko eskubidea izan beharko lukete. Egun, ordea, oraindik badaude diskriminazio egoerak, eta krisialdian areagotu egin dira. Horiei aurre egiteko neurriak jasotzen dituen Gida eta Protokoloa ditu LABek eta bata zein bestea inplementatzeko urratsak egingo ditugu.

(213) Aniztasun funtzionala duten langileak: kolektibo honek soldata baxuak eta prekaritate maila altua pairatu behar izaten du, gehienek enplegu zentro berezietan lan egiten dutelako. Langileen %40k lanbidearteko soldataren %40 ko-bratzen du. Horrela, pertsona hauek, gehiegitan, bizitza duinerako eskubidea urratua dute.

(214) Aniztasun funtzionala duten langileak enplegu arruntean sartzeko neurriak sustatuko ditugu. LABek borroka egingo du enpresa publiko eta pribatuetan aniztasun funtzionala duten pertsonentzako lanpostu kuotak gorde eta enplegu zuzenarekin bete daitezen -eta ez enplegu zentro bereziak azpikontratatuta-; lan egin ahal izateko barrerak kendu diezaizkieten eta lan-prozesuan behar diren baldintzak izan ditzaten.

(215) Negoziazio kolektiboan ere euren integrazioa lortzeko neurrien alde borrokatuko gara: ordutegien moldaketa, funtzioan aldaketak, birkokapenak, telelana, baimen bereziak, lan kontratuen suspentsioak, laguntzaile pertsonalen hornikuntza e.a.

(216) Jatorri aniztasuna: migranteen kasuan diskriminazio egoera itzela da. Kolektibo honek pairatzen duen egoera aldatzeko eta Euskal Herriko gainontzeko langileek dituzten lan eskubide eta eskubide sozialak izan ditzaten, lanean jardungo da LABek. Horretarako, migranteak bigarren edo hirugarren kategoriako langileak izan ez daitezen, baldintza legeletan -lan kontratuarekin eta gizarte segurantzaren afiliatuta- lan egin dezaten eta pairatzen dituzten diskriminazioekin (mota guztietakoak) bukatzeko borrokatuko gara.

6.1.4. Lan osasunerako sistema publikoaren aldeko apustua

(217) Lan osasunaz ari garenean ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala bermatuko digun enpleguaz ari gara, gure osasunari kalterik egingo ez dion lanpostuaz. Gure ereduari jarraiki, osasuna bere osotasunean ulertzen dugu, alegia, pertsonak bere ingurunearekin duen harreman orekatuan, eta ez soilik gaixotasunen ausentzian. Kontzeptu hori prekaritatearen guztiz kontrakoa da, prekaritateak babesgabetasuna eta ahultasuna dakartzalako ezinbestean.

(218) Lan osasunaren galeraz hitz egiten dugunean, istripu eta gaixotasun profesionaletaz gain, hau da, sistemak onartzen dituen horietaz gain, lanak ekar dezakeen edozein osasun galeraz ari gara. LABek osasun galera guztiei egin behar die aurre.

(219) Lan osasunerako eskubidea babesteko eredu publikoa behar dugu. Lagileon osasuna ezin da izan eredu desberdinetan zatitua (osasun publikoa, asistentziazkoa eta prebentiboa). Izan ere, osotasunaren zati bat izan behar da, osasun sistemaren barruan txertatua. Hots, osasun eta prebentzio-eredu publiko, unibertsal, kalitateko eta partizipatiboa.

(220) Eredu horrekin batera, egitura instituzional tekniko, aholkulari, ikuskatzaile eta zigortzailea sendotu behar da prebentzioaren eremuan.

(221) Gaur egungo egoerari aurre egiteko, prebentzio zerbitzuen osoko estaldura ziurtatu behar da, eta benetako pre-

bentzio neurrien gabezia enpresetan borrokatu. Honekin batera, prebentzio zerbitzuen estaldura eta prebentzio neurri-rik ezaren gaineko kontrola areagotu behar da.

(222) Prebentzio zerbitzuek enpresekiko izan behar duten independentzia bermatzeko, sistema publikoan txertatutako prebentzio zerbitzuak barnebiduko dituen prebentzio ereduranzko bidea egin behar da. Hori guztia partaidetza elementuekin eta langile kolektiboaren ordezkariak prebentzio neurrietan egindako kontrol sozialarekin egin behar da.

(223) Eredu publikoaren aldeko gure jarreraren barruan ere, gaur egungo kontingentzia arruntak zein profesionalak mutualitateetatik osasun sistema publikora bideratu nahi ditugu. Gainera, mutualitate horiek (desagertarazteko asmoz) hemendik kontrolatu behar ditugu. Gero, mutualitateak sistema publikoan txertatu behar dira, irizpide ekonomizistak eta interes pribatuak alde batera utzita, pribatizazio estrategien kontra.

6.1.5. Lan munduaren euskalduntzea

(224) Lan mundua euskalduntzeko, erakunde/enpresen euskalduntze integrala ahalbideratu eta langileon hizkuntza eskubideak ere bermatuko dituen eredu berria behar dugu:

(225) • Langileok eskubidea dugu euskara ezagutzeko. Beraz, langileok euskara ikasteko eskubidea izan behar dugu gure lanaldiaren barnean eta doan, lehentasunezko eta ezinbesteko formazioa dela kontutan hartuta.

(226) • Langileok eskubidea dugu gure lan-jarduera eta lanbidea euskaraz gauzatzeko. Horretarako, baliabide eta bitarteko guztiak eskura behar ditugu, euskaraz.

(227) • Langileok eskubidea dugu gure lan harremanak euskaraz burutzeko. Harreman sozioekonomikoak diren neurrian, langile - enpresa arteko, langileon arteko edota bestelako subjektuekiko harremanak euskaraz burutze ko eskubidea dugu.

(228) • Hauek guztiak eskubide pertsonalak (langile bakoitzarenak) eta kolektiboak (herriarenak, langilariarenak) dira. Normalizazioa era planifikatu, ordenatu, adostu eta arautuan egin behar da, aipatu eskubideetan oinarrituta.

6.1.6. Babes sozialerako sistema publiko, unibertsal eta duina behar dugu

(229) Duintasunez bizi ahal izateko, pertsona guztiek dute babes sozialerako eskubidea. Babes sozialerako sistema aurrekontu publikoen bidez finantziatuko da. Diru-sarrerak, kalitateko zerbitzu sozial eta zaintzen sare unibertsal eta publikoa bermatuko du.

(230) Sistema hori eraiki bitartean, bazterketa sozialaren aurkako Premiazko Plan bat abiatzea ezinbestekoa da:

(231) Langabeturik ez, prestazio barik. Zenbateko duina izango duen langabezia prestazioa bidera dadila enplegurik ez den bitartean.

(232) Kalitateko enplegurik ezean, diru-sarreraren bermea guztiontzat: gaur egun babeserako dauden prestazio desberdinak ez dira nahikoak eta aldatu behar dira babesa iritsi dadin behar duen ororengana. Pobrezia-atalase azpitik ez da errentarik egon behar. Pobreziaren mailak Euskal Herrian sortzen den aberastasuna hartuko du kontuan irizpidetzat.

(233) Etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea eta elikadurarako eskubidea bermatzea. Inor ez dadila elektrizitate-terik, gasik, urik gabe eta jatekorik gabe geratu.

(234) Zerbitzu publikoak, unibertsalak eta kalitatekoak behar ditugu. Hezkuntzan, osasunean, laguntza sozialetan eta enplegu-zerbitzu publikoetan inbertitu beharra dago. Giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak indartu behar dira, pertsonak duintasunez hartzeko eta hauen heziketa, orientazioa eta laneko bitartekotza sustatzeko.

(235) Iruzurrarekin, ustelkeriaz, zerga-ihesa tarteko,... ostu den dirua berreskuratu eta itzultzea eskatzen dugu, eta inber-

tsio sozialera eta enplegu duina sortzera bidera dadila.

(236) Soldata sozialak pertsonen eskubidetzat aitortzea, hots, bizimodu duina garatzea ahalbidetzen duten baliabide ekonomiko nahikoa izateko eskubidetzat.

(237) Pentsioak: pentsio duinak bermatuko dituen sistema propio eta publikoa garatu behar da. Hau lortu bitartean, egun pobrezia mugaren azpitik dauden pentsio guztiak 1.080 euroko gutxieneko soldatara arte osagarritu behar dira. Zaintza lanen aitortzarik eza eta sexuaren arabera lan banaketa dela eta, egoera bereziki larria da emakumeentzat, honela, jubilazio garaian pobrezia mugaren azpitik dauden pentsio eratorriak izatera kondenatuak daude sarri. Pertsona ororentzat pentsio duin propio indibiduala izateko eskubidea defendatzen dugu, ezkontidearengandik eratorria izango ez dena.

6.2. Sektore publikoaren aldeko apustua

(238) Sindikatuak irudikatzen duen jendarte eredu alternatiboaren oinarrian sektore publiko indartsu bat egon behar dela esaten dugu. Sektore publikoa nola gorpuzten den eta zein funtzio betetzen dituen etorkizuneko Euskal Herrian (bir)aztertu eta erabaki behar dugu, euskal sozialismoaren abiapuntutik aldendu gabe, beti ere.

(239) Hamarkadetan zehar Euskal Herrian zerbitzu publikoak ez dira instituzioetatik soilik sortutako zerbitzuez hornitu. Nazio identitateari ukatutako eskubideak garatzeko sortutako ekimen pribatuek zerbitzu publikoaren izaera izan dute guretzat (ikastolen mugimendua edo Laborantza Ganbara, adibidez), baita irabazi asmoarekin eta instituzioen konplizitatearekin sortu diren zerbitzu publikoak garatzeko ekimen pribatuek ere (etxez-etxe laguntzaren atalean, esaterako). Etorkizuneko ereduari aipatutako bi esparruak maila berdinean ezin direla jarri daukagu.

(240) Bizi dugun testuinguruan, ordea, sektore publikoak kalitateko zerbitzu publikoak bermatzea dauka funtzio nagusizat. Azken urteetan izandako joera, aldiz, kontrakoa da; zerbitzu publikoetan murrizketak egiten ari dira, kalitatearen kaltetan. Sektore publikoa negoziarako eta, kapital metaketan, eliteen aberastasunerako baliagarria izaten ari da, zerbitzu publikoa merkantilizatzen ari da, alegia. Zerbitzu sozialak dira pribatizazioaren adibiderik argiena; dirua esku pribatuetan utzi eta zerbitzuaren kalitatearen ginetik lan baldintzen prekarizazioa gailendu da. LABentzat erronka izan behar da zerbitzu sozialen unibertsalizazio eta doakotasunaren aldeko borroka langileen lan baldintzen sakoneko hobekuntzarekin lotzea.

(241) Kalitate galerarekin batera, enplegu galera ere gertatzen ari da sektore publikoan. Estatuetatik murrizketak martxan jartzen direnean enpleguaren kalitateari ere erasotzen zaio. Zerbitzu publikoen kalitatea erasotzen den bezala, langile publikoen lan baldintzak ere erasotzen dira.

(242) Lan baldintzen eremuan, behin-behinekotasunean oinarritzen den ereduaren aurrean gaude. Enplegua egonkortu beharrean, zerbitzu publikoak merkantilizatzeko propio sortutako legeetan babesten dira gobernuak, hala nola, birjartze tasak edo gastuen sabaiaren legeak. Horiek lan baldintzen eremua erabat baldintzatzen ari dira; finean, kontratazio eredu iruzurrean antolatuta gelditzen da.

(243) Zerbitzu publikoen defentsarako, beraz, estrategikoa da sektore publikoko prekariedade egoeren aurka borrokatzea. Enplegu egonkortasuna eta enplegu sorrera izan behar ditu gure sindikatuak borroka ardatz, zerbitzu publikoen defentsan pausoak egiteko.

(244) Gaur egun, ordea, sektore publikoan orokorrean Estatuetatik zentralizazio pausoak geroz eta sendoagoak dira. Garbi dago, sektore publiko indartsua nahi badugu, indarrean dauden lege zentralizatzaileekin talka egingo dugula. Burujabetza ikuspegiarekin lan egitea ezinbestekoa izango zaigu sektore publikoaren defentsa egiteko.

(245) Hala ere, gurea ez da hor gelditzen. Irudikatzen dugun jendarte ereduari zerbitzu publikoen nolakotasunak berebiziko garrantzia dauka guretzat. Hezkuntza eredu, zerbitzu sozialen antolaketa, osasun eredu edo administrazioaren barne demokratizazioa bezalako lan esparruak ezin dira gure sindikatuko kideentzat arrotzak izan. Are eta gehiago,

politika sektorialak gure ekintza sindikal ereduaren oinarrian jarri behar ditugu, prekarietatearen aurkako borrokarekin batera.

(246) Langileen artean aktibazioa landu behar dugu, gure eredu sindikalaren garapenerako ezinbestekoa da. Sektore publikoan egindako inkestetan ikusten da lan baldintzen inguruan badagoela arreta eta ardura. Aktibazioerako bidean sindikatua langileengandik gertu ikusarazi behar dugu. Gure posizioa ezaguna eta konpartitua izatea lortu behar dugu eta, bereziki, prekarietatea pairatzen duten kolektiboek egin behar diegu eskaintza sindikala.

(247) Langileekin batera, erabiltzaileak ere aktibatu eta inplikatzeko ere garrantzitsua da, onurak guztion mesedetan baitira: zerbitzu publikoak garatzea zerbitzuaren kalitatearen mesedetan da; lan baldintzak hobetzean eskaintzen den zerbitzua ere hobetua da.

(248) Zerbitzu publikoen ereduaren eztabaidan ere LAB eragile garrantzitsu bihurtu dadin nahi dugu, gure milaka afiliatu eta ordezkariak ematen dituzten zilegitasunaz eta indarraz baliatuta. Politika sektorialen logikan kokatzen dira gure unean uneko aldarrikapenak, lan baldintzei lotuagoak direnak.

(249) Zerbitzu publikoen defentsan LAB aldarrikapen hauetan zentratuko da:

(250) • Pribatizazioaren aurkako borroka.

(251) • Pribatizatuta dagoen zerbitzuaren errebertsioaren aldeko borroka.

(252) • Behin-behinekotasunaren eta kontratu iruzurraren aurrean, finkatze prozesuak eta enplegu deialdi publikoak defendituko ditugu.

(253) • Zerbitzu publikoetan prekarietatearen gainontzeko aldagaien aurka borrokatu behar dugu; lan zamak, ratioak, gaixotasunen ordezkapenak e.a.

(254) • Estatuetatik etorritako erasoaren aurka, gure bide propioaren aldeko apustua berretsi:

- Zerbitzu publikoak garatzen uzten ez duten legeei ekimen burujabeen bidez erantzunez (birjartze tasak edo gastu zapaiaren legea)

- LOMCeri ez, hezkuntza eredu propio baten aldeko apustua egiten dugu.

6.3. Mobilizazioa eta aktibazioa indartu

(255) Gure helburuetan aurrera egiteko langileak aktibatu eta mobilizazio gaitasuna handitu behar dugu, lantokietan eta kalean. Ezinbestekoa da eredu berri baten aldeko urratsak egiteko. Lantokietako zein kaleko borroka guztiz osagarriak dira eta helburu bera elikatzen dute.

(256) Mobilizazioa aldarrikatzen dugu enpresarien aurrean, ezartzen ari diren lan harreman eredu antidemokratikoari aurre egiteko; mobilizazioa murrizketa eta pribatizazioen kontra, eta mobilizazioa instituzioen aurrean, gure interlokuzioa eraginkortu eta politikak aldatzera behartzeko.

(257) Kapitalaren kontra egiteko, borroka ideologikorako eta langileengana gerturatu eta langileak aktibatze gure esparru nagusia lantokiak dira. Honek ez du esan nahi lantokietan bertako lan arazoetara mugatuko garenik. Baina lantokietan langileak aktibatze, bai ala bai, beren eguneroko arazoetatik abiatu eta eskaintza argiekin egin beharko dugu.

(258) Atera ditzagun kalera lan harremanetan gertatzen ari diren erasoak erantzuteko eta soldata nahiz lan baldintzak hobetzeko borroka. Modu horretan, prekarioan dauden langile kolektibo batzuei —beren burua lan munduarekin iden-

tifikatua sentitzen ez dutenei— aktibaziorako bide berriak eskainiko dizkiegu, eta gainera, borroka sozializatzea eta jendarteari orokorrean mobilizatzeko aukera eskaintzea lortuko dugu, hori ere behar-beharrezkoa baita.

(259) Langileok gure eskubideen defentsarako izan dugun eta dugun borroka molderik eraginkorrena greba orokorra da, lantokiz lantoki, sektorez sektore eta, zer esanik ez, maila konfederalean egiten badugu.

(260) Azken urteetan egoera asko aldatu da eta aldaketa horiek dena zipriztintzen dute. Horrela, grebak, dugun tresna-rik garrantzitsuena izanik ere, baditu mugapenak. Prekarietatearen neurri gabeko hedapenak eragin zuzena du greba eskubidean, gero eta langile gehiagorentzat, formalki greba eskubidea aitortua duten arren, praktikan ez baita horrela. Zerbitzu minimo abusiboek ere zuzenean eragiten dute greba eskubidean, batez ere zerbitzu publikoei lotutako sektoreetan, greba eskubidea bera ezerezean uzteraino. Azkenik, eta ez garrantzi gutxiagokoa, borrokaren kriminalizazioa aipatu behar dugu.

(261) Greba eskubidea gauzatzeko aukera, batez ere, eremu industrialean eta tamaina batetik gorako enpresetan egoten da (kontuan hartzekoa da gurean enpresa asko txiki edo ertainak direla). Beraz, borroka molde honek mugapen argiak ditu bereziki sektorerik prekarioenetan.

(262) LABek —beti ere grebarako aukerak eta ohiko mobilizazio ereduak alboratu gabe— bere eskaintza eta praktika sindikalarekin langile kolektibo desberdinei borroka molde berriak eskaini behar dizkie, egoerari erantzun eta subjektua berrosatzeko helburu horretan, molde inklusiboak eta eraginkorrak.

(263) Ekintza sindikal berriaren logikan, sindikatuak jadanik bestelako molde batzuk jorratzen ditu; horietan sakondu eta berriak asmatu beharko ditugu. Segidan hainbat ideia aipatuko ditugu, adibide gisa; irudimena erabiltzea da kontua eta molde berriak asmatzea, beti ere helburuak argi izanda. Kasu batzuetan borroka ideologikoa egin eta kontzientzian eragin nahiko dugu, beste batzuetan ikusgarritasuna lortu ahalik eta esfortzu txikienaz, eta zenbaitetan, ahalik eta mobilizazio eraginkorrena izatea bilatuko dugu. Gainera, proposatzen diren adibide desberdinek elkar osagarritu dezakete:

(264) Egun antiprekarioak: lan mundutik kanpo dauden langileei edota beren lantokietan ekintza sindikalerako aukera handirik ez dutenei antolatu eta mobilizaziorako aukera eskaintzeko modua da, eskualde edo herri mailan mobilizazio desberdinak antolatuz. Ez da enpresa bateko gatazka zehatz bati lotua deitzen den mobilizazioa, askoz ere inklusiboagoa da.

(265) Borroken bat egiteak: hainbat enpresa edota lantokitan borrokan dauden langileen arteko konfluentziak sortu, langile elkartasuna elikatu, indarrak batu, gatazkei oihartzun handiagoa eman eta dagokien instituzioei konponbideak eskatu.

(266) Azpikontratazioak eragindako langileekiko elkartasun sareak: azpikontratazioa azken urteetan izugarri hedatu da bai esparru pribatuan, baita publikoan ere, pribatizazioen bidez. Lan kostuak merketzeko asmoz azpikontratazioak eragiten dituen zatiketa eta prekarietateari aurre egiteko jarduera desberdinetan dabiltzan langileen arteko harremana indartu eta borrokarako gaitasuna handitzea proposatzen dugu. Antolakuntza ponentzian isla duen proposamena da honakoa.

(267) Bezero eta erabiltzaileak antolatu: zerbitzu publikoetako nahiz pribatizatuta daudenetako bezero eta erabiltzaileak ere langile klasearen parte dira. Askotan eraginak pairatu behar izaten dituzte eta enpresariekin dugun borrokan gure aliatuak izatea lortu behar dugu. Gatazka asko luzatu ezean, sarritan ez dugu behar beste arreta jartzen honetan, baina aukera asko ematen ditu.

